

# IRAKURGAIK IZARBEIBARKO EUSKARAZ

Uterga, Ukar eta Garesko testu zaharrak  
eta berriak

Prestatzailea: Aitor Arana

# IRAKURGAIK IZARBEIBARKO EUSKARAZ

Uterga, Ukar eta Garesko testu zaharrak  
eta berriak

Prestatzailea: Aitor Arana

©

ISBN: 978-84-92413-

Lege Gordailua:

Diseinua, maketazioa eta ekoizpena: Joseba Berriotxo  
[www.erroteta.com](http://www.erroteta.com)

Printed in EU.

Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik  
ere, edizio honen Copyright-aren jabeen baimenik gabe.



## **AURKIBIDEA**

Sarrera

LEHEN ZATIA

Dotrina kristaua Utergako euskaraz

Dotrina kristaua Ukarko euskaraz

Sermoi zatia Ukarko euskaraz

«Hiru haurren kantika» Garesko euskaraz

BIGARREN ZATIA

Martin eta basajaunak

Ona eta piztia

Nola Kattalineek diabruari ziria sartu zion

## SARRERA

Urteen joanean liburu anitz aurkeztea suertatu bazait ere, inoiz ez dut *Irakurgaiak Izarreibarko euskaraz* bezalako liburu berezirik aurkeztu. Berezia da ibarrean gaur egun arte kontserbatu zaizkigun testuak —XVIII. eta XIX. mendeetan idatziak— edonoren esku jartzeaz gain, XXI.ekohiru testu berri ere erakusten dituelako.

Hori Euskal Herriko eremu euskalkidunetan gertatu balitz, ez litzateke albiste berezia izango, baina Izarreibarren bai, bertako euskara XX. mendean itzalirik egon ondoren, gaur egun ibarreko euskaltzaleek ahalegina egiten baitute, batetik, kontserbatu dena txukun argitaratzeko eta, bestetik, ibarreko euskarazko testu berriak argitaratzeko.

Gure esker onik zintzoena, beraz, GARELAKO elkarteari liburu hau argitaratzeko ahalegina egiteagatik, eta Garesko Udalari, Garesko euskaltegian 2010eko udazkenean eta 2011ko neguan ibarreko euskalkia ezagutzeko eta ikasteko egin ziren bi ikastaroen babeslea izateagatik.

Irakurleak berehala asmatuko du gure liburuak bi zati dituela eta horiek oso desberdinak direla. Lehen zatiko testuak antzina herritar euskaldunei kristau gaiak irakasteko erabiltzen ziren testuak direnez gero, erlijio testuak dira —bi dotrina eta Bonaparte printzeak jasotako *Hiru haurren kantika*— eta ez dira, berez, irakurgaiak. Bigarren zatiko testuak, berriz, honako hauek dira: *Itzarreibarko euskara. Ikasliburua eta Hiztegia* (Garesko Udala, 2010) liburuko *Martin eta basajaunak* ipuina, eta arestian aipaturiko ikastaroetan etxerako lan gisa ibarreko euskalkira egokituriko *Ona eta piztia* eta *Nola Kattalinek diabruari ziria sartu zion* ipuinak.

Ikasle-irakasleen artean eginiko lan horrek, gainera, aukera eman digu Martinen ipuinean aurkitu ditugun akatsak zuzentzeko. Mila esker, hortaz, etxerako lanak txintxo-txintxo egin zituzten ikasleei.

Aitor Arana  
2011ko udazkenean

**Lehen zatia**

## **DOTRINA KRISTAUA** **Utergako euskaraz**

Eriotzeko orduen amen Jesus:

### **Kredoa**

Nik siñestatzen dut Jankoiko aite guzis poderosuaren baiten, zerueren eta lurreren Kriadorearen baiten. Eta Jesu Kristo arren seme bakar gure jaunen baiten, zein konzebitu izen baize Espiritu Sandueren obras; jago ze Andre Marie Birjinerengandik, padezitu zea pasio eta dolore Ponzio Pilato Juezan manuaren azpien. Kruzifiketu zute, il ze, ortzi zute. Jaitxi ze Sanduen Linbotara, andik irugarren egunean resuzitetu ze illen ertetik.

[Siñestatzen dut] igen zela zeruetara eta an dagola jarririk Aite Eternoan eskoietako aldean, nondi etorriko baite Juizioko egunean illen eta bizien juzgetzera. Nik siñestatzen dut Espiritu Sandueren baiten Elizama Sandu Katolikoan, Sanduen komuniuen, bekatuen barkaziuen, aragien Resurrekziuen eta Bizitze Sekulakua[n]. Amen Jesus.

### **Salbea**

Jangoikuek salba zazkiela Reine, miserikordieren Ama, bizitze dulzetasune eta gure esperanza, Jangoikuek salba zaizkiela. Zur[e] gana deies gaude Ebaren seme desterratuok. Aies, suspiros, sentimentus beterik balle negarresko ontan. Ea, bada, gure Abogada itzulizazkizu gure gana zure baigi miserikordiosk[o] oiek, eta destierro au kunplitueskeroes erakusaguzu zure sabeleko fruktue, Jesus. O, [...] dulce Birjine Marie, Jangoikuen Ama Sandue, oteiz in zazu gure gatik mereji dezazkigun Jesu Kristoren Prometimentuek. Amen.

Jangoikueren legeko mandamentuek dire Amar.

Lendabisko irurek pertenezitzen dakio Jangoikuen onrari, eta bertze zazpiek proximoaren probetxoari.

Lendabiskue, Jangoikue amatzea eta onratzea gauze guzien gañen.

Bigarrena, ez juramentu falsorik egitea.

Irugarrena, xeiek eta igendeak guardatzea.

Laugarrena, Aite eta Ama onratzea.

Borzgarrena, ez igor iltzea.

Seigarrena, luxurieko bekatutik apartatzea.

Zazpigarrena, ez igori daus ebastea.

Zortzigarrena, ez falso testimoniorik eta ez gezurrik erratea.

Bedratzigarrena, ez lagunen bizikiderik deseatzea.

Amargarrena, Jangoikuek maten digunes kontentatzea.

Amar mandamentu sanduok enzerratzin dire bietan. Lendabiskue Jangoikue amatzea eta onratzea gauze guzien gañen, eta bigarrena gauren buruok bezala proximo lagune onesitzia. Amen.

Artikulo fedeskoak dire amalau.

Lendabisko zazpiek pertenezitzen daizkio dibinidadeari, eta bertze zazpiek Jesu Kristo gure jaun Jangoiko eta gizon berdaderoan umanidade sandueri.

Dibinidadearenak dire abek:

Lendabiskue, siñestatzea dela Jangoikue guzis poderoso.

Bigarrena, siñestatzea dela aite.

Irugarrena, siñestatzea dela semea.

Laugarrena, siñestatzea dela Espiritu Sandue.

Borzgarrena, siñestatze[a] dela kriadore.

Seigarrena, siñestatzea dela salbadorea.

Zazpigarrena, siñestatzea dela glorifekedorea.

Humanidadearenak dire abek:

Lendabiskoe, siñestatzea Jesu Kristo gure Jaune gizon bezenbates izan zela konzebitue Espiritu Sanduen obras.

Bigarrena, siñestatzea j[a]io zela Andre Marie Birjinerenganik, gailtzen zela birjinik erdi baño len, erditzian ta erdieskeros.

Irugarrena, siñestatzea pasatu zuela pasio eta [e]riotze mundu guzien salbatzeagatik.

Laugarrena, siñestatzea txaitxi zela sanduen linbotara an zauden anime justoen reskatatzera.

Borzgarrena, siñestatzea il eta irugarren egunean resuzitetu zela illen ertetik.

Seigarrena, siñestatzea igen zela zeruetara eta an dagola jarririk aite eternoan eskuiteko aldean.

Zazpigarrena, siñestatzea etorriko dela juizioko egunean onen eta gaistuen juzgetzera onogi manko diotela zeruko glorie, zergati guardatu zitusten arren mandamentuek, eta gaistoegi infernuko pena zergati es zitusten guardatu. Amen.

Elizeko mandamentuek dire bortz:

Lendabiskue, xeietan eta igendetan meza osorik entzutea.

Bigarrena, urtean bein bedade edo lenago nezesidader[i]k barinbedu konfesatzea.

Irugarrena, Bazkua garizumekotan (baru) komekatzea.

Laugarrena, Eliz Ama Sanduek manatzen duenean barutzea.

Borzgarrena, amarren eta primiziek osorik egitea. Amen.

Obra miserikordioskoak dire amalau:

Lendabisko zazpiek espiritualeak, eta bertze zazpiek korporalak.

Espiritualak dire abek:

Lendabiskue, es takienari erakustea.

Bigarrena, konseju biar duenari konseju ematea.

Irugarrena, uts iten duena korrejitzea.

Laugarrena, injuriek barkatzea.

Borzgarrena, tristeak konsolatzea.

Seigarrena, proximo lagunene adbersidade eta flakezak pazienzietan eramutzea.

Zazpigarrena, illes eta bizies Jangoikuerei oteiz egitea.

Korporalak dire abek:

Lenbiskue, eriek bistetzea.

Bigarrena, goseak dagonari jatera matea.

[I]rugarrena, egarriek dagonari edatera matea.

Laugarrena, kautiboak reskatatzea.

Borzgarrena, billusiek bestitzea.

Seigarrena, periginoari ostatu matea.

Zazpigarrena, illek ortzitzia. Amen.

Elizeko Sakramentuek dire zazpi:

Lenbisko bortzak obligesioskoak, bertze biek borondateskoak.

Lenbiskue, bateietzea.

Bigarrena, konfirmetzea.

Irugarrena, konfesatzia.

Laugarrena, komekatzia.

Borzgarrena, olietzea.

Seigarrena, ordenatzea.

Zazpigarrena, matrimonio sandue.

Bekatu kapitalak dire zazpi:

Lendabiskue, soberbie.

Bigarrena, abarizie.

Irugarrena, luxurie.

Laugarrena, ire.

Borzgarrena, gule.

Seigarrena, enbidie.

Zazpigarrena, pereza.

Zazpi bizioen kontra zazpi birtute:

Soberbien kontra humildadea. Abarizien kontra largeza. Luxurien kontra kastedadea. Ireren kontra pazienzie. Guleren kontra abstinenzie. Enbidieren kontra karidadea. Perezaren kontra dilijenzie.

Birtute Teologalak dire iru: fedea, esperanza eta karidadea.

Birtute kardinalak dire lau: prudenzie, justizie, fortaleza eta tenp[lan]za.

Sentido korporalak dire bortz:

Lendabiskue, baigis kusitzia.

Bigarrena, biarris aitzea.

Irugarrena, sudurres urrin itea.

Laugarrena, agus gustetzea.

Borzgarrena, auñ eta eskues palpatzea.

### Konfesio jenerala

Ni bekatarie konfesatzen naio zeruetako Jauneri, Andre Marie Birjineri, San Migel Aingerueri, San Juan Bautisteri, San Pedro eta San Pablo Apostoologi, zeruen diren sandu eta santa guziegi, eta naure aite konfessore orri in duten bekatu itzes, obras eta pensamentus. Jaune, enea da kulpe. Jaune, enea da kulpe andie. Arg[a]ti oteiz egiten diot Andre Marie Birjineri, San Migel Aingerueri, San Juan Bautisteri, San Pedro eta San Pablo Apostoologi, zeruen diren sandu eta santa guzie[ri], eta naure aite konfessore orri, oteiz in zaten neregatik gure Jaun eta Jangoikueri. Amen.

### Akto kontrizioskoa

Jesu Kristo nere Jaune, Jangoiko eta gizon berdaderoa, nere kriadorea eta redentoria, nordena gatik eta zergati amatzen duten gauze guzien gañen, damu dut, Jaune, biotz guzitik orren [...] Majestadea ofenditue. Proponitzen dut firmeki es berris bekaturik egi[tea], aparta[tzea] ori ofenditzeko okasio guzietati, konfesa[tzea] eta kunpli[tzea] penitenzie konfessoreak maten direna. Ofrezitzen dizkiot naure bizi, obra eta trabajuek bekatu guzien satisfeziotan. Eta doket esperanza orren bondade [...] infinituaren baiten barkatuko dizkirela, bere odol prezioso pasio eta eriotzear-gatik. Emanko direla grazie emandatzeko eta perseberatzeko orren serbizio sandue eriotzereño. Amen Jesus.

Animen enemigoak iru: mundue, demonioe eta aragie.

—Nola garaituko dugu mundue?

—Menosprezietuereki arren ponpa eta banidadeak.

—Nola garaituko dugu Demonioe?

—Orazio eta humildadeareki.

—Nola garaituko dugu aragie?

—Aspereza, diszipline eta barueki.

—Iru enemigoetatik zein da andiena?

—Aragie.

—Zergati?

—Zergatik aragi[e] ez beizakegu egotzi gauren ganik, eta mundue eta Demonioe bai.

Birtute teologalak: fedea, esperanza eta karidadea.

—Zer da fedea?

—Kusi bageko gauze sinestatzea zergatik Jangoikuek rebelatu zuen.

—Zer da esperanza?

—Esperatze[a] Jangoikueren baiten manko digule glorie bere grazien medios eta gure obra onen medios.

—Zer da karidadea?

—Jangoikue amatzea gauza guzien gañen eta gure proximoak gaurok bezala.

Animen potenziak iru: memorie, entendimentue eta borondatea.

—Zertako man zigu jangoikuek memorie?

—Akorda geinzen artas eta arren benefizios.



- Zertako man zigu entendimentue?  
—Zautzeko eta pensa[tze]ko Jankoikue[n] bait[en].  
—Zertako man zig[u] karidadea?  
—Jangoiko amatzeko gauze guzien gañen eta proximo lagune arreatatik.

Nobisimoak dire lau: eriotzea, juizioe, infernue eta glorie.

- Zer da eriotzea?  
—Anime korputzetai apartatzea.  
—Zer da juizioe?  
—Il te Jangoikueri kontu ematea.  
—Zer i[nfern]ue?  
—Kastigo maten duena Jangoikuek, bekatu mortalari iltzen denari.  
—Zer da zerue?  
—Jangoikuek maten duen premioe, arren grazien iltzen denari.

### **Konfesioe**

- Zenbat gauza dire nezesario konfesio on bat egiteko?  
—Bortz, jaune. Lendabiskue, examen konzienzikoa. Bigarrena, dolorea. Irugarrena propositua. Laugarrena, konfesioe eta borzgarrena satisfekzioe.  
—Zer da examena?  
—Bekatuak memoriera ekartzea.  
—Nondi iten da examena?  
—Jangoikuen legeko mandamentuetatik elize (sic) bortzak eta obra miseriordioskoetatik.  
—Zer da dolorea?  
—Artzea dolore eta sentimentu Jang[oiku]e ofend[it]ues.  
—Zenbat aldetara da dolorea?  
—Bietara.  
—Zein dire?  
—Kontrizioe eta Atrizioe.  
—Zer da Kontrizioe?  
—Artzea damu eta sentimentu and[i] bet Jangoikue ofenditues nordenagati.  
—Zer da Atrizioe?

- Artzea damu eta sentimentu andi bet Jangoikue ofenditues, zergati pribetuko bainau zerutik eta kastigetuko infernuko peneki.  
—Bi dolore abetati zein de obrena?  
—Kontrizioe.  
—Zergatik?  
—Zergati kontrizioek barkatzen duen bakarrik, bañe Atrizioek konfesioreki.  
—Zer da propositua?  
—Itea proposito firme bat ez ofenditzeko.  
—Zer da konfesioe?  
—Erratea konfeseareari bere bekatuek ziertoak ziertotako, dudosoak dudotako, ez kendu eta ez añaditu.  
—Zer da satisfazioe?  
—Konfeseoreak maten duen penitentie kunplitzea.  
—Bekaturen bat utzitzen barinbeda alkes konfesatzeko, konfesio ona [da]?  
—Ez jaune, solo gaistoa.  
—Eta atzendurik utzitzen bada, konfesio ona da?  
—Bai, jaune.

### **Komekatzeko**

- Zenbat gauze biar dir[e] ongi komekatzeko?  
—Iru: lenbiskoa, barurik; bigarrena, grazien; eta irugarrena, xakitia zer rezibitzaera dueien.  
—Zer rezibitzen da Sakramentu Sandu komekatzekoan?  
—Jesu Kristo gure Jaune jangoiko eta gizon berdaderoa bizirik dagon bezala zeruetan.  
—Zer erraten da juaten denean komekatzea?  
—Jaune, ni es naiz digno orren [...] Majestadea sar dadien nere [etxean]; alarik ere, orren itz sanduen erraneskeros, nere bekatuek izein dire barkatuek eta ene anime izein de [...] salba.  
—Zer dago ostien?  
—Sazerdoteak itz konsagrazioskoak erran baño len ogi guti bet, eta sazerdoteak itz konsagrazioskoak erran eskeros, Jesu Kriston korputz[a].  
—Zer dago kalizen?  
—Sazerdoteak itz konsagrazioskoak erran baño len ardo piske bat, eta sazerdoteak itz konsagrazioskoak erran eskeros, Jesu Kristo gure Jaunen odol[a].

- Bizirik edo illik egoten da Kristo?  
—Bizirik, jaune.  
—Non da[gl]o Jesu Kristo?  
—Jangoiko bezenbates leku guzietan eta zeruen eta Aldareko Sakramentu Sanduen, eta gizon bezenbates solo zeruen eta Aldareko Sakramentu Sanduen.  
—Sazerdoteak partitzen duenean ostie, partitzen da Jesu Kristo?  
—Esta partitzen solo guzietan dago osorik.  
—Zenbat naturaleza ditu Kristok?  
—Bi, jaune: dibinoa eta humanoa.  
—Zenbat entendimentu?  
—Bi: dibinoa eta humanoa.  
—Zenbat memorie?  
—Bat, eta ure humanoa.  
—Zenbat persona?  
—Bat, eta ure dibinoa.  
—Ezen zu Jangoikuek prinzipiorik?  
—Ez, jaune.  
—Izen bear du fiñik?  
—Ez, jaune.

#### **Akto fedeskoa**

Nik siñestatzen dut firmeki nere Jangoikue dela ori: Jangoikue aite, Jangoikue semea eta Jangoikue espiritu sandue. Iru persona distinto eta solo Jangoiko berdadero-at, [...] ona [...], guzis poderosoa, prinzipio eta fin gauze guziena. Siñestatzen dut eze Jesu Kristo nere Jaune dela Jangoiko berdaderoa, eta gizona jaio zela. Andre Marie Birjinerengandik padezitu zuela, il zela, resuzitetu zela, igen zela zeruetara, etorriko dela juzgetzera mundue, eta dagola realki Aldareko Sakramentu Sanduen. Siñestatzen ditut bertze Artikulo guziek manatzen dizkirenak elize katolikoak siñestatzea, zergati orla rebelatu zuen orrek nere Jangoikue.

#### **Akto esperanza[skoa]**

Nik esperatzen dut eze orrek nere Jangoikue bere miserikordie infinituaren medios, Jesu Kristo orre[n] seme eta nere Redentoriaren merejimentu bere ama Marie Santisimeren interzesioaren medios, eta obraon proponitzen dituten egitia orren graziereki, barkatuko dizkirela nere bekatuek eta emanen direla glorie eternoa.

#### **Akto karidadeskoa**

Nik amatzen dut nere Jangoikue nere anime guzireki gauza guzien gañen, zergati den [...] ona eta dignoa amatue izeteko; amatzen ditut orrengati naure proximo guziek naurau bezala, eta barkatzen diotet biotzetik edozein agrabio orren amoria-rengatik.

#### **Akto kontrizioskoa**

Damu dut biotz guzitik nere Jangoikue ori ofenditue, zergati den ain ona nola den, eta zergati amatzen duten nere anime guzireki. Aborrezitzen ditut bekatu guziek, eta proponitzen dut firmeki ez ofenditzie berris. Bizi bedi Jesus, il bedi bekatue! Misericordie, nere Jangoikue [...].

#### **Doktrine Sanduen espliketioa**

- Kristioa da?  
—Bai, jaune. Jangoikuen graziarengatik.  
—Kristioaren izena nondi du?  
—Kristo gure Jaunerengandik.  
—Zer nai du erran Kristiue[k]?  
—Kristoren gizona.  
—Zer entendatzen du Kristoren gizonas?  
—Gizon duena fede Jesu Kristona, zein profesatu baizu bautismoan, eta dago ofreziturik arren serbizio sandureko.  
—Zein de Kristioaren señealea?  
—Krutze sandue.  
—Zergatik?  
—Zergati baite figura Kristo kruzifiketuena, non redimitu baiginduzki.  
—Zenbat maneras usetzen du kristiuek señeale ortas?  
—Bies, jaune.  
—Zein dire?  
—Zeñetzea eta santiguetzea.  
—Zer da zeñetzea?  
—Egitea iru krutze eskubiko biatz andies: lendabiskue bekoskien, bigarrena aguan, irugarrena petxoetan mintzetzen gadelarik gure Jaun eta Jangoikoereki.  
—Egin beza.  
—Gurutze sandueren...

- Zergati zeñetzen da bekoskien?  
—Jangoikuek libra gaizkien pensamentu gaistuetatik.  
—Zergati zeñetzen da aguan?  
—Jangoikuek libra gaizkien itz gaistoetatik.  
—Zergatik zeñetzen da petxoetan?  
—Jangoikuek libra gaizkien obra eta deseo gaistoetatik.  
—Zer gauze da santiguatzea?  
—Egitea krutze bat eskubiko bi biatzes: asi bekoskiti eta petxoetareño, petxoe-  
tatik ezkerreko soñegireño, ezkerreko soñegitik eskubikoreño, inbokatzen dugulerik  
trintate []poderoso.  
—Egin beza.  
—Aitaren izenean...  
—Noiz biar da usetu señale ortas?  
—Obra on bat egin biar dugunean edo arkitzen gadenean nezesidade, tentazio  
eta peligroetan [...] guatzetik xagitzean, itxeti atratzean, elizen sartzean, jatean eta  
edatean.  
—Zergati enbertze aldiz?  
—Zergati instenteoro beidade enemigoak tentatzen.  
—Zer enemigo dire oiek?  
—Mundue, demonioe eta aragie.  
—Badu krutzeak birtuterik enemigo oien kontra?  
—Bai, jaune.  
—Nondik du krutzeak birtute ori?  
—Zergati Kristo il zenean krutze sanduen, benzitu baizitue.  
—Adoratzen duenean krutze sandue, zer erraten du?  
—Adoratu eta bediketzen dut Kristo zergati grutze sanduen medios redimitu zuen  
mundue.  
—Eta nola iago?  
—Adoratzen dut krutze sandue zergati den nere redentoria eta izen zen kruzifiketue.

### **Deklarazioe**

- Zenbat gauze dago obligeturik xakitera krist[i]ue allagatzen denean uso eta  
arraziora?  
—Lau, jaune.

- Zein dire?  
—Lendabiskue, xakitia zer siñestatu; bigarrena, xakitea zer eskatu; irugarrena,  
xakitia zer obratu; laugarrena, xakitia zer rezibitu.  
—Nola xakiñen du zer siñestatu?  
—Xakiñiken kredo edo artikuloak.  
—Nola xakiñen du zer eskatu?  
—Xakiñiken aitegurea eta bertze elizeko orazioek.  
—Nola xakiñen du zer obratu?  
—[Xakiñiken] Jangoikuen legesko mandamentuek, elizeko bortzak eta obra  
miserikordioskoak.  
—Nola xakiñen du zer rezibitu?  
—Xakiñiken elizeko zazpi sakramentu sanduek.  
—Nork erran zue kredoak?  
—Amabi Apostoloek.  
—Zertako?  
—Dugun fedean informatzeko.  
—Eta orrek zertako erraten du?  
—Kristioek dugun fedea konfesa[tze]ko.  
—Zer gauze da fedea?  
—Kusi bageko gauze sinestatzea.  
—Kusi zue Jesu Kristo jaiotzen?  
—Ez, jaune.  
—Kusi zue iltzen edo zeruetara igeten?  
—Ez, jaune.  
—Siñestatzen du?  
—Bai, jaune.  
—Zergatik?  
—Zergati Jangoikoek rebelatu zion Elize Ama Sanduere eta Elize Ama Sanduek  
erakusitzen digun guri.  
—Zer gauze dire orrek dituenak eta siñestatzen dituenak Kristio den bezala?  
—Dituenak eta siñestatzen dituenak Eliza Ama Sandu katoliko Romanoak.  
—Zer dire orrek eta Elize Ama Sanduek dozkitenak eta siñestatzen ditustenak?  
—Artikulo fedeskoak [...] kredoan doden bezala.

- Zer gauze dire artikuloak?  
—[...] Fedearen misterio[]ak.  
—Zertako dire Artikulo Fedeskoak?  
—Mateko notizie [...] gure Jaun eta Jangoikoes eta Jesu Kristo gure redentorias.  
—Nor da gure Jaun eta Jangoikue?  
—[...] Gauze bat aĩn excelente eta admirable ezbaiteke erran eta ez pensatu. Jaun bet [...] ona guzis poderosoa, sabioe, justoa, prinzipio eta fin gauze guziena.  
—Trintate []poderosoa nor da?  
—[...] Jaungoikue bera, aita, semea eta espiritu sandue. Iru persona [...] eta Jangoiko berdadero-at.  
—Aite Jangoikoe da?  
—Bai, jaune.  
—Semea Jangoikue da?  
—Bai, jaune.  
—Espiritu Sandue Jangoikue da?  
—Bai, jaune.  
—Iru Jangoiko dire?  
—Ez, jaune: solo iru persona [...] eta Jangoiko berdadero-at.  
—Aita semea da?  
—Ez, jaune.  
—Espiritu Sandue aite edo seme[a] da?  
—Ez, jaune.  
—Zergatik?  
—Zergati baitide iru persona distinto eta solo Jangoiko berdadero-at.  
—Nor da aite?  
—[...] Trintateko bigarren persona dibinua, zeñek prozeditzen baitu aiteren eta semearen amoretik.  
—Nola da Jangoikue guzis poderosoa?  
—Zergatik bere podores iten baitu nai duen guzie.  
—Nola da kriadore?  
—Zergati dausetatik in zituen gauze guziek.  
—Nola da salbadorea?  
—Zergati maten baitu grazie eta barkatzen bekatuek.

- Nola da Jangoikoe glorifikadorea?  
—Zergati maten baitu glorie arren grazia guardatzen denari.  
—Badu Jangoikuek figura korporalik?  
—Jangoi[ko] bezenbates, ez jaune, zergati baite espiritu purua, bañe bai gizon bezenbates.  
—Iru personetatik zeĩn in ze gizon?  
—Semea, jaune.  
—Non?  
—Ama Birjiñen entrañetan.  
—Noren obras?  
—Espiritu Sandueren obras.  
—Nola izen ze obra ori?  
—Espiritu Sandu Jaunek Ama Birjiñen entreñetako odol [...] artas formatu zue korputz bet, kriatu zue anime ba[t]. Unitu zire korputz eta anime, eta gero juntetu zire trintateko bigarren personareki eta len Jangoiko zena gailtu ze Jangoiko eta gizon egiñik.  
—Aite egin ze gizon?  
—Ez, jaune.  
—Espiritu Sandue egin zen gizon?  
—Ez, jaune.  
—Nor, bada?  
—Sol[o] semea, zeñ iñiken gizon daizo Jesu Kristo.  
—Nor da Jesu Kristo?  
—[...] Jangoikoaren seme bizie, in zena gizon gu redimitu eta exemplo mateagatik.  
—Zer nai du erran Jesus[ek]?  
—Salbadorea.  
—Zertati salbatu ginduzki?  
—Bekatatik eta demonioen kauteberioti.  
—Zer nai du erran Kristo[k]?  
—Unjitue.  
—Zertas izen ze unjitue?  
—Espiritu Sanduen grazies eta dones.  
—Kristo gure jaune nola izen ze konzebitue eta jago ze Andre Marie Birjiñeren-ganik?

- Obratzen zuelarik Jangoikuek milagrosamente.  
—Eta Marie [...] bizi ze beti birjinik?  
—Bai, jaune [...].  
—Non il ze Kristo?  
—Krutze sanduen.  
—Zergatik?  
—Gu eta mundu guzie salbatzeagati.  
—Ilte nora jua ze?  
—Linbora.  
—Nola?  
—Anime uniturik dibinidadeari.  
—Eta Gorputze non gallitu ze?  
—Krutze sanduen dibinidadeareki.  
—Nola resuzitatu ze irugarren egunean?  
—I[tzultzen] zelarik juntetzera Korputz eta Anime Gloriosoak ez berris iltzeko.  
—Noal igen ze zeruetara?  
—Bere birtute propios.  
—Zer entendatzen du «dago xarririk aite eternoan eskuietako aldean»?  
—Duela igual glorie aite eta espiritu sanduereki Jangoiko bezenbates eta gizon bezenbates ez enbertze, bañe bai zeruko sanduek baño iago.  
—Noiz etorriko da illek eta biziok juzgetzera?  
—Azken juizioko egunean.  
—Eta orduen biar dute resuzitetu illek?  
—Bai, jauna; lenago irugi zitusten korputz eta animeki.  
—Zer siñestatzen du sanduen komunioen?  
—Krist[i]o fiel guziek dutela parte orazio espirituale guzietan, estado graziokoan dodelarik mienbro diren bezala Elizekoak.  
—Nor da Elize?  
—[...] Krist[i]o fiel guzien trono eta kongregazioe, zeñen burue baite aite sandu Romakoa.  
—Nor da aite sandu Erromakoa?  
—[...] Romako Pon[t]ifize sumoa, Jesu Kristoren bikarioe lurrian, nori guziok baigode obligeturik obeditzera.

- Kredo eta Artikuloak baño iago zer siñestatzen du?  
—Eskriture Sagratuek diona eta Jangoikuek dokena rebelaturik Elizama Sandueri.  
—Zer gauze dire oiek?  
—Oiek ezakizket erran, zergati bainez ignorantea. Doktoriak ditu Elizama Sanduen dakitenak responditzen.

### **Eskatzeko**

- Nork erran zu aiteguria?  
—Jesu Kristok.  
—[Zertako?]  
—Guri orazio egiten erakusitzeko.  
—Zer da orazio egitia?  
—Jangoikuere biotzes mertxede eskatzea.  
—Aitagurea erraten duenean, noreki mintzetzen da?  
—Gure Jaun eta Jangoikuereki.  
—Non dago Jangoikue?  
—Leku guzietan, espezialmente zeruen eta Aldareko Sakramentu Sanduen.  
—Orazio guzietatik zein de prinzipalena?  
—Aitagurea.  
—Zergatik?  
—Zergati Jesu Kristok erran baizue Apostoloek eskatu ziotelarik.  
—Eta zergatik iago?  
—Zergati bait[i]tu zazpi petizio karidadean fundeturik.  
—Zein de lendabiskoe?  
—Santifika bedi zure izena.  
—Zer eskatzen dugu petizio ontan?  
—Jangoikuere [izena] izen dadiela zautue eta onratue mundu guzien.  
—Zein da bigarrena?  
—Etorri bedi zure Reñue.  
—Zer eskatzen dugu petizio ontan?  
—Reine dezala Jangoikuek lurrean gure animetan eta gero digule zeruko glorie.  
—Zein da irugarrena?  
—Egin bedi zure borondatea zeruen bezala lurrean ere.

- Zer eskatzen dugu petizio ontan?  
—Egin zagule Jangoikueren borondatea lurrean godenok ala nola egiten duten zeruko bienabenturetuek.  
—Zein de laugarrena?  
—Eman zaguzu egunorosko ogie.  
—Zer eskatzen dugu petizio ontan?  
—Man zagule Jangoikuek mantenimentu [...] (animerendako) korputzendako, eta grazie espiritualea sakramentueki animendako.  
—Zein de borzgarrena?  
—Barka zazkiguzu guri gauren zorrak nola guk barkatzen diotegun gauren zordunegi.  
—Zer eskatzen dugu petizio ontan?  
—Barka zazkigule Jangoikuek gure bekatuek nola guk barkatzen diotegun agrabietu eta gaitz iten digutenegi.  
—Zein da seigarrena?  
—Ez gaizkizuela utzi tentaz[ioa]n eroritzera.  
—Zer eskatzen dugu petizio ontan?  
—Ez gaizkiela utzi Jangoikuek erori eta konsentitzera pensamentu eta tentazio gaistueta[n].  
—Zein da zazpigarrena?  
—Baizik libra gaizkizu gai[tzeti]k.  
—Zer eskatzen dugu petizio ontan?  
—Libra [g]aizkiela Jangoikuek anime eta korputzen peligro gaistoetatik.  
—Zergati erraten da lendabisko «aite gurea zeruetan zaudena»?  
—Biotza goratu eta Jangoikueri eskatzeko mertxede.  
—Zer erran nai du «amen» azken erraten den arrek?  
—Ala izan dadiela.  
—Zer orazio erraten dio Marie santissime[ri]?  
—Abemarie eta Salbea.  
—Nork erran zue Abemarie?  
—Aingeru San Grabielek, etorri zenean saludetzera Marie [...].  
—Nork erran zue Salbea?  
—Elize Ama Sanduek doke rezibiturik.  
—Zertako?

- Eskatzeko mertxede Marie Santisimeri.  
—Abemarie edo Salbea erraten duenean, noreki mintzetzen da?  
—Marie Santisimereki.  
—Nor da Marie Santisime?  
—[...] Señora bat birtutes betea, zein baite Jangoikuen Ama eta dago zerutan.  
—Eta Aldarean dagona nor da?  
—Zeruetan dagonan imajen eta semejanza.  
—Zertako dago Aldarean?  
—Ur[a] ikusi eta akorda gaizen zeruen dagonen eta zergati den arren imajena.  
—In zogun reberenzie. // In biar du orazio Sandu eta Aingeruegi?  
—Bai, jaune, gure medianero diren bezala.  
—Zer gauze dire Aingeruek?  
—[...] Espiritu bienabenturetu-etzuk, dodenak zeruen Jangoikuen gozatzen.  
—Zertako krietu zitu Jangoiko gure Jaunek?  
—Eternidade guzien bediketuek eta alabatu dezaten.  
—Zertan iago?  
—Arren ministro bezala gobernatzeko Elize eta guardatzeko gizonak.  
—Badu orrek Aingeru Guardakoa?  
—Bai, jaune, eta guziek dute berea.  
—Urige zozu debozio ona eta enkomenda zeit egunoro.  
**Obratutzeko**  
—Zein de Jangoikoen legeko lendabisko mandamentue?  
—Jangoikue amatzea gauze guzien gañen.  
—Nork amatzen du Jangoikue?  
—Arren mandamentuek guardatzen dituenak.  
—Zer [d]a Jangoikue amatzea gauze guzien gañen?  
—Naiago galdu gauze guziek eze Jangoikue ofend[i]tu.  
—Zertara iago obligetzen gaitu mandamentu onek?  
—Adoratzera Jangoikue bera bakarrik reberenzie andi bateki, korputz eta animes siñestatu eta esperatzen dugule arren baiten fede bizi bateki.  
—Nork iten du bekatu orren kontra?  
—Adoratu eta sinestatzen duenak idolo eta Jangoiko falsoetan.  
—Nork iago?

- Siñestatzen duenak aguero eta gauze superstiziosoetan.
- Zein de bigarrena?
- Ez jurementurik falsoan egitea.
- Nork egiten du juramentu falsoan?
- Iten duenak aigieren kontra justizie eta nezesidaderik bage.
- Zer remedio da ez juramenturik falsoan egiteko?
- Akostunbretu erratera ez edo bai, Jesu Kristok erakutsi zigun bezala.
- Zein da irugarrena?
- Xeiek eta igendeak guardatzea.
- Nor[k] guardatzen ditu xaiek eta igendeak?
- Meza osoa entzuten duenak eta estena trabajatzan nezesidade graberik gabe.
- Zein da laugarrena?
- Aita eta Ama onratzea.
- Nork onratzen ditu Aite eta Ama?
- Obeditu, sokorritu eta reberenzietzen ditustenak.
- Nor bertze[r]ik entendatzen da Aite eta Amas?
- Andiagokoak adiñen dignidadean ta gobernuen.
- Zein de borzgarrena?
- Ez igor iltzea.
- Zer manatzen da mandamentu ontan?
- Ez igori gaitzik egitea ez obras ez itzes, eta ez deseos.
- Zein de seigarrena?
- Luxuriek bekatuti apartatzea.
- Ze[r] manatzen da mandament[u] ontan?
- Izen gaizela garbiek [...], pensamentu, itz eta deseotan.
- Zein de zazpigarrena?
- Ez igori daus ebastea.
- Zer manatzen da mandament[u] ontan?
- Ez kendu ez irugi eta ez deseatu bertzeren gauze xabian borondatean kontra.
- Zein de zortzigarrena?
- Ez falso testimoniorik altxatzea eta ez gezurrik erratea.
- Zer manatzen da mandamentu ontan?
- Ezagule juzgetu lijeroki proximoan gaitze eta ez aitu eta erran arren defektoak.

- Nork kebrantatzen du mandamentu au?
- Juzgetu eta infamatzen duenak, arrazioeren kontra sekretue agirtzen duenak eta gezur erraten duenak.
- Zer debekatzen da bedratzi eta amargarren mandamentuen?
- Deshonestidadean eta haziendan deseoa.

### **Rezibitzia**

- Zer gauze dire Sakramentuek?
- [...] Señale batzuk exterioreak instituituek Jesu Kristo gure Jaunek mateko aien medios bere grazie eta birtuteak.
- Zer gauze da grazie?
- [...] Izete dibino-at nork iten baitu gizona Jangoikueren seme eta zeruko heredero.
- Zer birtute maten du[t]e Sakramentuek graziereki batio?
- [...] Iru teologalak eta dibinoak.
- Zein dire?
- Fedea, esperanza eta karidadea.
- Zer gauze da fedea?
- Kusi bageko gauze siñestatzea zergati Jangoikuek rebelatu zuen.
- Zer gauze da esperanza?
- Esperatzia glorie, Jangoikuen grazie eta gure obra onen medios.
- Zer gauze da karidadea?
- Jangoikue amatzea eta onratzea gauze guzien gañen, eta gauren proximoak gauren buruok bezala.
- Zertako da Sakramentu Bautismokoa?
- Ekentzeko bekatu orijinala eta bertze edozein arkitzen dena bateietzen den artan.
- Zer da bekatu ori[j]inalea?
- [...] Bekatu, zeñeki guziok xaio baigada eredaturik Adan eta Ebarenganik.
- Zertako da Sakramentu Konfirmetzekoa?
- Konfirmetu eta inder mateko bautismoan rezibitu ginduen fedeari.
- Zertako da Sakramentu Penitenziakoa?
- Bateietu[esge]ros iñikeko bekatuek barkatzeko.
- Zer bekatu dire oiek?
- Mortalak eta benialeak.
- Zer da bekatu mortala?

—[...] Erratea, egitea, pensatzea edo deseatzea gauze graberen bat Jangoikuen legearen kontra.

—Zergati deitzen da «mortala»?

—Zergati iltzen baitu anime it[en] duena[rena].

—Zer parte ditu penitenziek bekatu mortala barkatzeko?

—Iru: Kontrizioe, Konfesioe eta Satisfesioe.

—Bekatu mortalean erortzen denean bear da konfesatu berla barkatzeko?

—Ongi litzeke, bañe esta nezesario.

—Zer in biar du, bada?

—Iru: dolore bere bekatues proposito firme bateki emendatu eta konfesatzeko Eliz Ama Sanduek manatzen duenean.

—Zer da bekatu benialea?

—[...] Bekatu mortalari disposizioe.

—Zergati daitzen da «benialea»?

—Zergati lijeroki kometitzen baite eta lijeroki barkatzen.

—Zenbat gauzen gatik barkatzen da?

—Bedratzigatik [...].

—Zein dire?

—Lenbiskue, meza entzuteargati; bigarrena, komekatzeargatik; irugarrena, konfesio jeneralagati; laugarrena, obispoan bendizioegatik; borzgarrena, ogi bediketue artzeargati; seigarrena, ur bediketu artzeargatik; zazpigarrena, aitegurea errateargati; zortzigar[ren]a, sermon aitzeargati; bedratzigarrena, Jangoikueri miserikordie eskatzeargatik.

—Zertako da Sakramentu Sandu Komeka[tze]a?

—Rezibitzen dela dignoki, izen dadien gure animen mantenimentu eta aumantatu dezagun grazie.

—Zer rezibitzen da Sakramentu Sandu ontan?

—Jesu Kristo gure Jaune Jangoiko eta gizon berdaderoa, zein baitago [...] Aldareko Sakramentu Sanduen.

—Zertako da Sakramentu Olinedurekoa?

—Iru gauzetako: lenbiskoa, kentzeko resto [...] pasaturikeko bizi gaistoan; bigarrena, mateko inder animeri demoni[o]en tentazioen kontra; eta irugarrena, mateko osasune korputzeri konbeni bada.

## **DOTRINA KRISTUA Ukarko euskaraz**

Grutze Sanduaren señaletatik, gure etsaetatik libra gaitzazu gure Jaun ta Jaungoikoa. Aitaren eta Semearen eta Espiritu Sanduaren izenean. Amen Jesus.

### **Aitagurea**

Aita gurea Zeruetan (dagona) zaudena, santifika bedi zure izen ori, etorri bedi zure erreñu ori, kunpli bedi zure borondate sandu ori, Zeruan bekala lurrean ere, eman dezaguzu guri egunorosko ogie, egun eta beti, barka zazkiguzu guri gauren zorrak, guk nola barkatzen baizkietegu gu zor gaitusteneri, ez gaitzazula utzi tentazioan erortzera. Libra gaitzazu gaitzetik. Amen Jesus.

### **Abe Maria**

Jangoikoak salba zaitela Maria, grazias betea, Jauna da Zureki, bedikatua zara Andre guzien erlean, eta bedikatua da zure sabeleko frutu bedikatua Jesus. Santa Maria, Jangoikoaren Ama, zuk otoitz egin zazu gu bekatariengatik, orai eta beti, gure eriotzeko orduan. Amen Jesus.

### **Kredo[a]**

Nik siñestatzen dut Jangoiko Aita guzis poderosoaren baitan, Zeruari, eta lurraren Kriadorearen baitan, eta Jesu Kristo arren Seme Jaun bakarraren baitan, zein konzebitu baize Ama Birjinaren entrañetan Espiritu Sanduaren obras eta birtutes, jaio ze Birjina Mariaren gandik pasatu zuela pasio doloresko Ponzio Pilato Juezaren manuaren azpian, gurutzean gruzifikatu zute, il zute, ortzi zute, jautxi ze linboetara, han zauden Anima Sanduen atratzera; ilte irugarren egunean erresuzitatu zela illen ertetik bizien ertera, igan ze Zeruetara, an dagola jarririk, Aita eternoaren eskuietako aldean, eta arren igualdanean, nondik etorriko baita azken juizioko egunean onen ta gaistoan juzgatzen. Nik alaber siñestatzen dud Espiritu Sanduaren baitan, Eliza Ama Sandu Katolikoan, Sanduen komunioan, bekatuen barkazioan, aragiaren erresurrezioan, bizi sekulakoan. A[me]n J[esu]s.

### **Salbe[a]**

Jangoikoak salba zaitela Reina, miserikordiaren Ama, gure bizie, dulzura eta esperanza. Salbe, zure gana deies gaude Ebaren ume desterratuak, aies, negarres eta suspiros beterik, balle negarresko onetan. Ea, bada, Andrea, gure Abogada, itzuli-zazkizu zure begi miserikordiosko goiek gure gana, ta desterro au kunplitu ondoan, erakutsi zaguzu zure sabeleko frutu bedikatua Jesus. [...] O dulce Birjine Maria! Jangoikoaren Ama Sandue, zuk otoitz egin zazu gure gatik mereji dezazkigun alkantzea Jesu Kristoren prometimentu Sanduak. Amen Jesus.



Jangoikoaren Legesko Mandamentu Sanduak dire amar. Lendabisiko irurak pertenezitzen zaizkionak Jangoikoaren onrari, eta bertze zazpiek proximo lagunaren probetxuari.

1. Jangoikoa onetsitzea gauza guzien gañetik.
2. Juramenturik banoan ez egitea.
3. Jaiak eta igandeak guardatzea.
4. Aita eta Ama eta zarragoak onratzea.
5. Ez nior iltzea eta ez deseitzea.
6. Luxuriasko bekatutik apartatzea.
7. Ez niori deus ebastea, eta ez deseitzea.
8. Ez niori falso testimoniorik goititzea, eta ez gezurrik erratea.
9. Proximo lagunaren bizikedia ez deseitzea.
10. Jangoikoak ematen digunareki kontentatzea.

Amar Mandamentu Sanduak enzerraten dire bietara. Lendabisikoa, Jangoikoa onetsitzea gauza guzien gañetik; bigarrena, proximo laguna gauren buruak bezala. Amen Jesus.

Artikulo Fede Sanduskoak dire amalau. Lendabisiko zazpiak pertenezten zaizkionak Dibinidadeari, eta bertze zazpiak Jesu Kristo gure Jaunaren umanidade Sanduari. Dibinidadearenak dire obek:

- Lendabisikoa siñestatzea dela Jangoikoa bakarra guzis poderoso.
2. Siñestatzea dela Aita.
  3. Siñestatzea dela Semea.
  4. Siñestatzea dela Espiritu Sandue.
  5. Siñestatzea dela Kriadorea.
  6. Siñestatzea dela Salbadorea.
  7. Siñestatzea dela Glorifikadorea.

Bertze zazpiak, humanidade sanduenak, dirade oek:

1. Siñestatzea Jesu Kristo gure Jauna gizon bezanbates konzebitu zela Ama Birjinaren entrañetan Espiritu Sanduaren obras eta birtutes.
2. Siñestatzea jai zela Birjine Mariaren gandik gelditzen zelarik Birjinik erdi baño len, erditzean eta erdiesgerostik, beti Birjinik.
3. Siñestatzea pasatu zuela pasioa eta eriotzea, gu eta mundu guzie salbatzeagatik.
4. Siñestatzea jautxi zela linboetara, an zauden Anima Sanduen atratzera.

5. Siñestatzea ilt irugarren egunean erresuzitatu zela illen ertetik bizien ertera.

6. Siñestatzea igan zela Zeruetara, eta an dagola jarririk Aita Eternoaren eskuie-tako aldean, eta Arren igualdadean.

7. Siñestatzea etorriko dela azken juizioko egunean onen eta gaistoen juzgatzera, onei emanen diotela Paraisoko glorie, zergatik goardatu baizuste Mandamentu Sanduak, eta gaistoei Infernuko penak, zergatik ez paizuste goardatu Mandamentu Sanduak. Amen Jesus.

Elizeko Mandamentu Sanduak dire bortz.

1. Jaietan eta igandetan meza osoa entzutea.
2. Urtean bein berere konfesatzea, edo lenago, barinbadu eriotzeko peligrorik edo komekatu bear badu.
3. Bazkua Garizumakoetan komekatzea, edo lenago, barinbadu eriotzeko peligrorik.
4. Eliza Ama Sanduak manatzen duenan barutzea.
5. Amarren, primiziek, oso ta leal egitea. Amen Jesus.

Obra Misericordioskoak dire amalau. Lendabisiko zazpiak espiritualeak, bertze zazpiak korporaleak: Espiritualeak dire abek:

- Lendabisikoa, estakienari erakustea.
2. Konseju bear duenari konseju ematea.
  3. Uts egiten duenari korrejitzea.
  4. Injuriak barkatzea.
  5. Tristeia konsolatzea.
  6. Sufritzea pazienziareki proximo lagunaren adbersidadeak eta flakezak.
  7. Jangoikoari otoitz egitea illen ta biziengatik.

Bertze zazpiak korporalak dire obek:

- Lendabisikoa, eriek bisitatzea.
2. Goseak dagonari jatera ematea.
  3. Egariak dagonari edatera ematea.
  4. Kautiboak reskatatzea.
  5. Bulusiek bestitzea.
  6. Pobre peregrinoari ostatu ematea.
  7. Illek ortzitzea. Amen Jesus.

Elizako Sakramentu Sanduak dire zazpi.

Lendabisikoa, bataiatzea.

2. Konfirmatzea.

3. Konfesatzea.

4. Komekatzea.

5. Oliatzea.

6. Ordenatzea.

7. Matrimonio Sandua. Amen Jesus.

Bekatu Kapitalak dire zazpi.

Lendabisikoa, Soberbia; 2., Abarizia; 3. Luxuria; 4. Ira; 5. Gula; 6. Enbidia; 7. Pereza.

Zazpi bizioen kontra, zazpi birtute.

Soberbiaren kontra, Humildatea. Abariziaren kontra, Largeza. Luxuriaren kontra, Kastidatea. Iraren kontra, Paziencia. Gularen kontra, Tenplanza. Enbidiaren kontra, Karidatea. Perezaren kontra, Dilijenzia.

Birtute Teologalak dire iru.

Lendabisikoa, fedea; 2., Esperanza; 3. Karidatea.

Birtute Kardinalak dire lau.

Lendabisikoa, Prudenzia; 2., Justizia; 3., Fortaleza; 4., Tenplanza.

Animan etsaiak dire iru.

Lendabisikoa, Mundua; 2., Demonioa; 3., Aragia.

Animan potenziak dire iru.

Lendabisikoa, Memoria, 2., Entendamentua; 3., Borondatea.

Sentido Korporalak dire bortz.

Lendabisikoa, begis ikustea.

2. Bearries aitzea.

3. Sudurres urrin egitea.

4. Agos gustatzea.

5. Eskus eta oñes ukitzea edo palpatzea.

Nobisimoak dire lau.

Lebabisikoa, eriotzea; 2., Juizioa; 3., Gloria; 4., Infernue.

### **[Konfesio jenerala]**

Ni bekataria konfesatzen naizaio Zerueta Jaunari, Andre Marie Birjinari, San Migel Angiruari, San Juan Bautistari, San Pedro eta San Pablo Apostoloeri, Zeruan diren Sandu eta Santa guziei eta aien lekuan nere aita konfessoreari, egin dutela bekatu itzes, obras eta pensamentus. Jauna, enea da kulpa [...] guzis aundie. Argatik otoiitz egiten diot Andre Maria Birjinari, San Migel Aingiruari, San Juan Bautistari, San Pedro eta San Pablo Apostoloeri, Zeruan diren Sandu eta Santa guziei, eta aien lekuan nere aita konfessoreari, otoiitz egin zaten neregatik nere Jaun eta Jangoikoari. Amen Jesus.

### **[Akto kontrizioskoa]**

Jesu Kristo nere Jauna, Jangoiko ta gizon egiaskoa, nere Kriadorea, nere Redentorea, zerengatik zaren Jaun bat ain ona, onetsitzen zaitut gauza guziok baño iago; damu dut, Jauna, [...] biotz guzitik ofenditues, eta egiten dut proposito firme bat ez berris bekatu egiteko, konfesatzeko, konfesoeroak ematen diren penitentzia kunplitzeko. Jauna, nik ofrezitzen dizkizut nere bizie, obra eta trabajuek, nere bekatuen satisfaziotan, eta dauket esperanza, barkaturik, emain dirazula grazia emendatzeko eta perseberatzeko orren serbizio sanduan eriotzeko orduraño. Amen Jesus.

### **Doktrina**

—Zenbat Jangoiko dire?

—Bat, jauna.

—Zenbat Persona?

—Iru, jauna.

—Zein dire?

—Aita, Semea eta Espiritu Sandua. Iru persona [...] eta Jangoiko berdadero bat.

—Aita Jangoikoa da?

—Bai, jauna.

—Espiritu Sandua Jangoikoa da?

—Bai, jauna.

—Iru Jangoiko dire?

—Ez, jauna: iru persona [...] eta Jangoiko ber[da]dero-at.

- Nor da Aita?  
—[...] Trinitate Sanduko lendabisiko persona dibinoa, zeñek enjendratu baizue seme bakar bat igual esenzie eta distinto persona.  
—Nor da Semea?  
—[...] Trinitate Sanduko bigarren persona dibinoa, Aita Eternoak enjendratua.  
—Nor da Espiritu Sandua?  
—[...] Trinitate Sanduko irugarren persona dibinoa, Aitaren eta Semearen amoriotik ta borondatetik eldu dena.  
—Iru persona dibinoetatik, zein egin ze gizon?  
—Bigarrena, zein baita Semea.  
—Non egin ze gizon?  
—Ama Birjinaren entrañetan.  
—Noren obras?  
—Espiritu Sanduaren obras ta birtutes.  
—Zenbat gauza obratu zitue?  
—Lau, jauna.  
—Zein dire?  
—Lendabisikoa, Espiritu Sanduek Ama Birjinaren entrañetan odol txorta bates formatu zue korputz bat; 2., kriatu zue anima bat; 3., juntatu zitue anima korputzareki; 4., Trinitate Sanduko bigarren persona dibinoa, baita Semea, artu zue gure naturaleza ta gelditu ze [j]angoiko ta gizon egiñik.  
—Jangoiko eta gizon egiñesgerostik nola deitzen da?  
—Jesu Kristo.  
—Zenbat naturaleza du Kesu Kristok?  
—Bi, jauna.  
—Zenbat entendamentu?  
—Bi, jauna.  
—Zenbat borondate?  
—Bi, jauna.  
—Zein dire?  
—Dibinoa ta humanoa; Dibinoa Jangoikoa bezanbates, eta humanoa gizon bezanbates.  
—Zenbat memoria du Kristo gure Jaunak?  
—Bat, jauna.

- Dibinoa edo humanoa?  
—Humanoa, jauna.  
—Zergatik eztu memoria dibinorik?  
—Zergatik Jangoiko bezanbates gauza guziek baitauzki p[ro]nto.  
—Zenbat persona arkitzen dire Kristo gure Jaunaren baitan?  
—Bat, jauna.  
—Dibinoa edo humanoa?  
—Dibinoa, jauna.  
**[Lendabisiko partea]**  
—Kristioa zara?  
—Bai, jauna, Jangoikoaren graziagatik.  
—Nondik duzu Kristioaren izena?  
—Kristo gure Jaunaren gandik.  
—Zer nahi du erran Kristioa[k]?  
—Kristoren gizona.  
—Zer entendatzen-zu Kristoren gizonagatik?  
—Kristoren fedea duen gizonak, zein profesatu baizue bataiatzean, eta dagona obligaturik arren serbizio sandura.  
—Zein da Kristoren señaleara?  
—Grutze Sandua, jauna.  
—Zergatik?  
—Zergatik baita Kristo Kruzifikatuaren figura.  
—Zenbat modutara da?  
—Bietara, jauna.  
—Zein dire?  
—Zeñatzea eta Santiguatzea.  
—Zer da Zeñatzea?  
—Eskuieko beatz andias iru grutze egitea. Lendabisikoa bekoskean, bigarrena agoan, irugarrena petxoetan mintzatzen gadelarik gure [J]aun eta Jangoikoan.  
—Zeña zaitte. Grutze Sanduaren...  
—Zergatik iten duzu grutzea bekoskean?  
—Jangoikoak libra gaizkien pensamentu gaistoetatik.  
—Zergatik agoan?

- Jangoikoak libra gaizkien itz errate gaistoetatik.  
—Zergatik petxoetan?  
—Jangoikoak libra gaizkien obra ta deseo gaistoetatik.  
—Zer da Santiguatzea?  
—Eskuieko bi beatzas grutze bat egitea, asi bekosketik, bularretaraño; ezkerreko soñetik eskuiekoraño, inbokutzen dugularik Trinitate Jaun Poderoso.  
—Santigua zaite. Aitaren...  
—Noiz usatu bear duzu señale ortas?  
—Denbora guzietan, [...] goatzera joatean, xaikitzean, etxetik atratzean, Elizara sartzean eta atratzean, ta bertze gañerako obra on guzietan.  
—Zergatik anbertze aldis?  
—Zergatik gure e[tsai]ak baitaude tentatzen, ta aien apartatzeagatik.  
—Zer e[tsai] dire oiek?  
—Mundua, Demonioa eta Aragia.  
—Badu grutzeak oien kontra birtuterik?  
—Bai, Jauna.  
—Nondik izan zue birtute ori?  
—Zergatik Jesu Kristok garaitu baizu, gurutzean bere eriotze sanduaren medios.  
—Grutze Sandua adoratzen duzularik, nola erraten duzu?  
—Adoratzen ta bedikatzen zaitut, Jesu Kristo nere Jauna, zerengatik Grutze Sanduaren medios erredimitu baizindue mundu guzie.  
—Kristioa bere entendamentura ellegatzen delarik zenbat gauza dago obligaturik xakitera?  
—Lau, jauna.  
—Zein dire?  
—Lendabisikoa, xakitea zer bear duen siñestatu; bigarrena, xakitea zer bear duen eskatu; irugarrena, xakitea zer bear duen obratu; laugarrena, xakitea zer bear duen errezibitu.  
—Nola xakiñen du zer bear duen siñestatu?  
—Dakizkigularik Kredo eta Artikulo Fede Sanduskoak.  
—Nola xakiñen du zer bear duen obratu?  
—Dakizkigularik Jangoikoaren Legesko Amar Mandamentu Sanduek, Elizako bortzak eta Obra Miserikordiaskoak.  
—Nola xakiñen dugu zer bear duen errezibitu?

- Dakizkigularik Elizako zazpi Sakramentu Sanduak.  
—Nork erran zuen Kredoan?  
—Amabi Apostoloek.  
—Zertako?  
—Gu fedean (erakusteko) informatzeko.  
—Eta guk zertako erraten dugu?  
—Fede duguna konfesatzeko.  
—Zer da fedea?  
—Ikusi gabe siñestatzea.  
—Ikusi zinduen Jesu Kristo jaiotzen?  
—Ez, jauna.  
—Iltzen edo erresuzitatzen?  
—Ez, jauna.  
—Igatzen Zeruetara?  
—Ez, jauna.  
—Siñestatzen duzu?  
—Bai, jauna.  
—Zergatik?  
—Zergatik Jangoikoak errebelatu baizio Eliza Ama Sanduari, eta Eliza Ama Sanduak ala erakusten digu guri.  
—Zer gauza dire Kristioak bezala dituzunak eta siñestatzen dituzunak?  
—Eliza Ama Sandu Erromakoak dituenak eta siñestatzen dituenak.  
—Zer gauza dire zuk eta Eliza Sanduak dituzunak eta siñestatzen dituzunak?  
—Artikulo Fede Sanduskoak [...], Kredoan dauden bezala.  
—Zer gauza dire Artikulo Fede Sanduskoak?  
—[...] Fede Sanduko misterio prinzipalenak.  
—Zertako dire Artikulo Fede Sanduskoak?  
—Emateko notizia [...] gure Jaun eta Jangoikoas eta Jesu Kristo gure Erredentoreas.  
—Nor da Jangoikoa?  
—[...] Gauza bat ain [...] admirablea, ezin erran eta pensatu daitekena. Jaun bat [...] ona, [...] prinzipio eta fin gauza guziena.  
—Non dago Jangoikoa?  
—Leku guzietan [...] Zeruan eta Aldareko Sakramentu Sanduan.

- Suan dago?  
—Bai, jauna.  
—Erretzen da?  
—Ez, jauna.  
—Urean dago?  
—Bai, jauna.  
—Bustitzen da?  
—Ez, jauna.  
—Zergatik?  
—Zergatik baita Espiritu puroa.  
—Nor da Trinitate Jaun podoroso?  
—[...] Jangoikoa bera, Aita, Semea eta Espiritu Sandua, iru Persona distintoak eta Jangoiko berdadero-at.  
—Aita Jangoikoa da?  
—Bai, jauna.  
—Semea Jangoikoa da?  
—Bai, jauna.  
—Espiritu Sandua Jangoikoa da?  
—Bai, jauna.  
—Iru jangoiko dire?  
—Ez, jauna, baizik iru Persona [...] ta Jangoiko berdadero-at.  
—Aita Semea da?  
—Ez, jauna.  
—Espiritu Sandua (Jangoikoa) da Aita edo Semea?  
—Ez, jauna.  
—Zergatik?  
—Zergatik baitire iru Persona [...] eta Jangoiko berdadero-at.  
—Nola da Jangoiko guzis poderoso?  
—Zergatik bere podores egiten baitu nai duen guzia.  
—Nola da Kriadorea?  
—Zergatik deusezetik kriatu baizitue gauza guziak.  
—Nola da Salbadorea?  
—Zergatik ematen baitu grazia eta bekatuen barkazioa.

- Nola da Glorifikadorea?  
—Zergatik ematen baitio gloria arren grazien perseberatzen duenari.  
—Badu Jangoikoak korputzeren figurerik guk bezala?  
—Jangoiko bezanbates ez, jauna, zergatik baita Espiritu puroa, baña bai gizon bezanbates.  
—Iru Persona Dibinoetatik zein egin ze gizon?  
—Bigarrena, baita Semea.  
—Aita egin ze gizon?  
—Ez, jauna.  
—Espiritu Sandua egin ze gizon?  
—Ez, jauna.  
—Nor egin ze gizon, bada?  
—[...] Semea zen gizon egiñik deitzen dena Jesu Kristo.  
—Nor da Jesu Kristo?  
—[...] Jangoikoaren Seme bizie, gizon egin zena gu erredimitzeagatik eta nola bizi bear dugun erakusteagatik.  
—Zer erran nai du Jesus [izenak]?  
—Salbadorea.  
—Zertatik salbatu ginduze?  
—Gure bekatuetatik eta demonioaren kautiberiotik.  
—Zer erran nai du Kristo [izenak]?  
—Unjitue.  
—Zertas izen ze unjitue?  
—Espiritu Sanduaren grazias ta dones.  
—Kristo gure jauna nola izan ze konzebitue eta nola xaio zen Birjine Maria gandik?  
—Egiten zuelarik Jangoikoak obra milagrosoa.  
—Arren Ama Sandua beti gelditu ze birjinik?  
—Bai, jauna [...].  
—Trinitateko iru Personetatik zein il ze?  
—Semea, jauna.  
—Non il ze?  
—Grutzean, jauna.  
—Zer gatik nai izan zue iltzea gurutzean?

- Gu bekatutik eta eriotzetik libratzeagatik.  
—Zer egin [zue] Anima Sandu[ak]?  
—Jautsi ze linboetara.  
—Nola jautsi ze?  
—Uzten zuelarik Korputza gurutzean, uniturik dibinidade Sanduareki, alaber jautsi ze Anima Sandu ure dibinidadeareki berareki.  
—Noiz erresuzitatu ze?  
—Ilta irugarren egunean.  
—Nola erresuzitatu ze?  
—Juntatzen zituelarik bere Korputz eta Anima gloriosa ez berris iltzeko.  
—Noiz igan ze Zeruetara?  
—Ilta berrogeigarren egunean.  
—Nola igan ze?  
—Bere birtute propios, niork lagunik egin bage erematen zituelarik bere konpañian, linbotik atra zituen Anima Sandu aiek, eta jartzen Aita Eternoaren eskuietako aldean eta Arren igualdadean.  
—Zer nai du erran dagola jarririk Aita Eternoaren eskuietako aldean[n] eta Arren igualdadean?  
—Jangoiko bezanbates duela igual gloria Aitareki ta Espiritu Sanduareki; gizon bezanbates ez anbartzte, baña bai Zeruan diren Sandu eta Santa guziek baño iago.  
—Zer da Eliza?  
—[...] Krist[i]o fiel guzien [...] kongregazioa, zeñen burua baita Aita Sandua Erromakoa.  
—Nor da Aita Sandua?  
—[...] Erromako Pontifize Kristoren bikarioa lurrean dagona, zeñeri gude obligaturik obeditzera.  
—Zer nai du erran Sanduen Komunioa[k]?  
—Krist[i]o fiel bat dagolarik estadosko grazian izain dela partizipante, bertze Krist[i]o guzien obra onetan korputz bateko mienbroak bekala, zein baita Eliza.  
—Zer nai du erran bekatuen barkazioa[k]?  
—Elizak dauzkiela medioak eta erremedioak gure bekatuen barkatzeko, oiek dire konfesioa eta Elizako zazpi Sakramentu Sanduak.  
—Zer nai du erran aragien erresurrezioa[k]?  
—Azken Juizioko egunean erresuzitatu bear dugula orai tugun korputz eta animeki.

- Zer nai du erran bizi sekulakoa[k]?  
—Bizi bear dugula sekulako sekulorun Zeruan edo Infernuan, non kabitzen den gure suertea.

### **Konfesio[a]**

- Zenbat gauza bear dirade xakin konfesio on bat egiteko?  
—Bortz, jauna.  
—Zein dire?  
—Lendabisikoa, examen [...] konziencia[rena]. 2. Dolorea. 3. Proposito [...] bat ez berris bekatuak egiteko. 4. Aita konfesoreari bekatuak konfesatzea. 5. Aita konfesoreak ematen duen penitencia kunplitzea.  
—Zer da examen [...] konziencia[rena]?  
—Bere bekatues ongi oraitzea.  
—Nondik oroituko da bekatues?  
—Erreparasatus amar Mandamentu Sanduak, Elizako bortzak eta obra Miserkordiaskoak.  
—Zer da dolorea?  
—Idukitzea damu Jangoikoa ofenditues.  
—Zenbat modutara da dolorea?  
—Bietara.  
—Zein dire?  
—Kontrizioa eta Atrizioa.  
—Zer da dolore Kontrizioa?  
—Idukitzea damu Jangoikoa ofenditues, zergatik baita Jaun bat ain ona eta ain perfettoa.  
—Zer da Atrizioa?  
—Irukitzea damu Jangoikoa ofenditues, zergatik bekatuen medios galtzen baitugu Zeruko glorie, merejitzen baitugu Infernuko penak, edo zergatik bekatue baita gauza bat ain itsuzie.  
—Zein da bi dolore oietatik oberena?  
—Kontrizioa, jauna.  
—Zergatik?  
—Zergatik Kontrizioak barkatzen baitu bekatuek Konfesatzeko deseoreki, baña Atrizioak ez du barkatzen konfesatu gabe.  
—Forma zazu Kontrizioa.

—Nere Jaun eta Jangoiko, nik dut damu zure dibina Majestadea ofenditues zerengatik zaren Jaun bat ain ona; propositoareki ez berris bekaturik egiteko, konfesatzeko eta konfesoreak ematen diren penitentzia kunplitzeko.

—Zer da Propositoa?

—[...] Artzea erresoluzio [...] firme bat ez berris bekaturik egiteko; lenago galdu gauren bizie [...] eta guziek, eze berris Jangoikoa ofenditu.

—Bekatuak nola bear dire konfesatu?

—Ziertoak ziertoak bekala, eta dudosoak dudosoak bekala.

—Kunplitu bear da konfesoreak ematen duen penitentzia?

—Bai, jauna.

—Zer bekatu da ez kunplitzea?

—Penitentzia grabea barinbada, bekatu mortala. Penitentzia lebea barinbada, bekatu beniala.

#### [Komekatzea]

—Zenbat disposizioareki bear dugu komekatu?

—Bieki, jauna.

—Zein dire?

—Bata Animan partetik, ta bertzea korputzan partetik.

—Animan partetik?

—Jangoikoaren grazian joatea.

—Eta korputzan partetik?

—[G]auesko amabietatik aurrera barurik joatea.

—Zer dago Hostian?

—Sazerdoteak Konsagrazioko itzak erran baño len, ogi piska bat orantzik bage, eta sazerdoteak Konsagrazioko itzak erran eskeros, Jesu Kristoren Korputz preziosoa.

—Zer dago Kalizean?

—Konsagrazioko itzek erran baño len ardo txorta bat, eta sazerdoteak Konsagrazioko itzek erran eskeros, Jesu Kristoren odol preziosoa.

—Sazerdoteak partitzen duelarik Hostia Konsagratua, partitzen da Kristoren Korputza?

—Ez, jauna.

—Sazerdoteak konsagratu eskeros gelditzen da Hostian ogiaren sustanziarik?

—Ez, jauna.

—Zer gelditzen dire, bada?

—Akzidenteak, zein baitire urriña, kolorea ta gustoa.

—Parterik andianean, edo txikianean dago Kristo iago?

—Guzietan igual, jauna.

#### [Aita gureas]

—Nork erran zue Aita gurea?

—Jesu Kristok bere ago sanduas.

—Zertako?

—Guri orazio egiten erakusteko.

—Zer da orazio egitea?

—Jangoikoari biotza goititza, eta mertxedeak eskatzea.

—Zein da oraziorik obernena?

—Aita gurea.

—Zergatik?

—Zergatik erran baizue Jesu Kristok bere ago sanduas Apostoloek eskaturik.

—Zergatik iago?

—Zergatik baititu zazpi petizio fundaturik karidadean.

—Zein da lendabisiko petizioa?

—Santifika bedi zure izen ori.

—Zer eskatzen duzu petizio ortan?

—Jangoikoaren izena izen dadiela ezautue, eta honratua mundu guzien.

—Zein da bigarrena?

—Etorri bedi zure erreñu ori.

—Zer eskatzen duzu petizio ortan?

—Jangoikoak erreina dezala gure animetan, mundu ontan gracias, eta bertze munduen glories.

—Zein da irugarrena?

—Kunpli bedi zure borondate sandu ori Zeruan bekala lurrean ere.

—Zer eskatzen duzu petizio ortan?

—Lurrean gaudenak egin dezagula Jangoikoaren borondatea, bienabenturatuak Zeruan egiten duten bekala.

—Zein da laugarrena?

—Eman dezagu egunorosko ogia.

—Zer eskatzen duzu petizio ortan?

—Jangoikoak eman dezagula korputzeko mantenamentu konbenientea, eta grazia, eta Sakramentuak Animarendako.

—Zein da borzgarrena?

—Barka zazkiguzu guri gauren zorrak, guk nola barkatzen baizkiotegu gu zor gaitusteneri.

—Zer eskatzen duzu petizio ortan?

—Jangoikoak barka zazkigula gure bekatuak, nola guk barkatzen baizkiotegu agrabiatu, ta injuriatu gaitusten guziei.

—Zein da seigarrena?

—Ez gaitzazula utzi tentazioan erortzera.

—Zer eskatzen duzu petizio ortan?

—Jangoikoak libra gaizkiela Animako eta Korputzeko gaitz eta peligro guzietatik.

—Aita gurea erraten dugularik, noreki mintzatzen gada?

—Jangoiko gure Jaunareki.

—Non dago Jangoiko gure Jauna?

—Leku guzietan, [...] Zeruan eta Aldareko Sakramentu Sanduan.

—Zertako erraten dugu Aita gurea Zeruetan zaudena?

—Jangoikoari biotza goititzeko eta mertxedeak eskatzeko humildade, eta konfianzareki.

—Zer nai du erran azkeneko itz arrek «Amen»?

—Ala izan dadiela.

—Eta Kredoak?

—Ala siñestatzen dugule.

—Zein dire Orazioak [...] errezatzen dizkiogunak Ama Birjinari?

—Abe Maria eta Salbea.

—Nork erran zue Abe Maria?

—Aingiru San Grabielek etorri zelarik Ama Birjinaren bisitatzera.

—Nork erran zuen Salbea?

—Eliza Ama Sanduak dauke errezibiturik.

—Zertako?

—Ama Birjinari mertxede eskatzeko.

—Abe Maria edo Salbea erraten dugularik, noreki mintzatzen gara?

—Ama Birjinareki.

—Nor da Ama Birjina?

—[...] Andre bat grazias eta birtutes betea, Jangoikoaren Ama Zeruetan dagona.

—Eta Aldarean dagona nor da?

—[...] Zeruan dagonaren imajena eta semejanza.

—Zertako dago Aldarean?

—Ura ikusirik orai gaitzen Zeruan dagonas, eta egin dezagun erreberenzia.

—Egin bear diotegu orazio Sanduei ere?

—Bai, jauna.

—Zergatik?

—Zergatik baitire gure medianeroak Jangoikoaren aurrean.

—Zer gauza diren Aingiruak?

—[...] Espiritu bienabenturatuak Zeruan daudenak Jangoikoas gozatzen.

—Zertako kriatu zitue Jangoikoak?

—Eternidade guzian bera alabatzeko eta bedekatzeko.

—Zertako iago?

—Bere ministroak bezala Eliza gobernatzeko eta gizonak guardatzeko.

—Bauzu zuk Aingiru guardakoa?

—Bai, jauna, eta gizon bakotxak du berea.

### [Mandamentuen petizioak]

—Zein da Jangoikoan legesko lendabisiko Mandamentue?

—Jangoikoa onetsitzia gauza guzien gañetik.

—Nork onetsitzen du Jangoikoa?

—Arren Mandamentuak guardatzen dituenak.

—Zer da Jangoikoa onetsitzea gauza guzien gañetik?

—Naiago izetea galdu gauza guziak, eze Jangoikoa ofenditu.

—Zertara iago obligatzen gaitu Mandamentu onek?

—Jangoikoa bakarrik adoratzera, animako eta korputzeko erreberenzie guziereki, siñestatzen eta esperatzen dugularik arren baitan fede biziereki.

—Nork egiten du bekatu onen kontra?

—Idoloak edo Jangoiko falsoak adoratzen dituenak eta aien baiten siñestatzen d[ue]nak.

—Nork geiago?



—Aguerotan siñestatzen duenak, eta balietzen denak etxizeries edo gauza super-tiziosoes.

—Zein da bigarrena?

—Juramentu egiten duenak egia bage, justizie bage eta nezesidade bage.

—Eta bekatue da egitea juramentu banoan kreaturengatik?

—Bai, jaune, zergatik aietan egiten zaio juramentu Kriadoreari.

—Zein da erremedio juramenturik banoan etz egiteko?

—Akostunbratzea erratera bai, edo etz, Kristok erakusten digun bezala.

—Zein da irugarrena?

—Jaiak eta igandeak guardatzea.

—Nork guardatzen ditu jaiak eta igandeak?

—Meza osoa entzuten duenak, eta trabajatzan estenak nezesidaderik bage.

—Zein da laugarrena?

—Aita eta Ama, eta zarragoak honratzea.

—Nork honratzen ditu Aita eta Ama eta zarragoak?

—Obedezitzen, sokorritzen eta erreberenziatzen dituenak.

—Nor[] bertzerik daude konprenditurik Aita eta Amas landara?

—Iago direnak adiñen, dignidadean eta gobernuan.

—Zein da borzgarrena?

—Etz nior iltzea, eta ez deseatzea.

—Zer manatzen zaigu mandamentu ontan?

—Ez iori gaizkirik egitea, etz itzes etz obras eta etz deseos.

—Zein da seigarrena?

—Luxuriasko bekatutik apartatzea.

—Zer manatzen zaigu mandamentu ontan?

—Izan gaitzela garbiak [...] pensamentuetan, itzetan eta obretan.

—Zein da zazpigarrena?

—Etz niori deus ebastea, eta etz deseatzea.

—Zer manatzen zaigu mandamentu ontan?

—Etz kentzea, ez idukitzea eta ez nai izatea bertzeren gauzarik jabearen boron-datearen kontra.

—Zein da zortzigarrena?

—Etz niori falso testimoniorik goititzea, eta etz gezurrik erratea.

—Zer manatzen zaigu mandamentu ontan?

—Ez egitea juizio gaistorik proximo lagunaren kontra, etz erratea, eta ez aitzea arren faltak.

—Nork austen du mandamentu au?

—Arrazioaren kontra juzgatzen duenak, fama kentzen duenak, sekretue manifestatzen duenak, edo gezurre erraten duenak.

—Bedratzigarren eta Amargarren Mandamentuek zer debekatzen digute?

—Desonestidadearen eta haziendaren deseo desordenatuek.

### [Sakramentuen petizioak]

—Zer gauza dire Sakramentuak?

—[...] Señale batzuek Jesu Kristok egin zituenak guri emateko aien medios bere grazia eta birtuteak.

—Zer da grazia?

—[...] Izete dibinoa, zeñen medios egiten da gizona Jangoikoaren seme eta Zeruko heredero.

—Zenbat birtute ematen dute Sakramentuek graziareki batio?

—[...] Iru birtute teologalak eta dibinoak.

—Zein dire?

—Fedea, Esperanza eta Karidatea.

—Zertako da Bautismoko Sakramentua?

—Bekatu orijinala kentzeko edo bertze edozein arkitzen bada bataiatzen denaren baitan.

—Zer gauza da bekatu orijinala?

—[...] Bekatu ure, zeñekin guziok jaiotzen gada heredaturik gure lendabisiko gureasoen gandik.

—Zertako da Konfirmatzeko Sakramentu Sandue?

—Gu konfirmatzeko eta fortaleztzeko Bautismo Sanduen errezibitzen dugun fedean.

—Zertako da Penitenziako Sakramentu Sandua?

—Bataiatues geros egin tugun bekatuak barkatzeko.

—Zer bekatu dire oiek?

—Mortaleak, baita benialeak ere.

—Zer da bekatu mortala?

—[...] Erratea, egitea, pensatzea edo deseatzea gauzaren bat, Jangoikoaren legearen kontra, materia grabean.

—Zergatik deitzen da mortala?

—Zergatik iltzen baitu egiten duenaren Anima.

—Zenbat parte ditu Penitenziako Sakramentuak kentzeko bekatu mortala?

—Iru, jauna.

—Zein dire?

—Biotzeko Kontrizioa, agosko Konfesioa eta obrasko satisfazioa.

—Eta bekatu mortalean erortzen denak biar du berla konfesatu?

—Ongi litzake, baña etz ta preziso.

—Zer egin behar du, bada?

[—Dolore iduki bere bekatues...]

## SERMOI ZATIA Ukarko euskaraz

(Sermoi hau Jesusek basamorutan izan zituen tentaldien inguruan eginiko azalpena da, Garizumako lehen igandekoa.)

Esta soldadorik ezpaita baliente kanpañarik estenean, baña kanpañara atra biar baute, animorik balientenak akobardatzen dire. Gauza ebek arla pasatzen dire mundu ontako batallaetan. Baña ez arla esta pasatzen, baizik [...] abibatzen animo baronilak, gerra espiritualetan batallatu biar dutenean, eta au izan ze motiboa fabrikatzeko romanoek estatuak, eta lazedemonioek triunfadoreri.

Iduri du Eliza Ama Sanduak estilatzten duela lomismo egungo egunean, zergatik proponitzen dizkigu bi baleroso konbatiente; bata Monarka Argitasunaña eta bertzea Prinzipe Iluntasunarena, egiten dutelarika beren enkuentroa batallatzeko orazio-aten ondoan, ematen digute entendatzera ikusten ditugulaika aiek peleatzen nula guk ikasi biar dugun garaitzen. Au da nola senti duen San Juan Kris[os]to[mo]k [...].

Nola agitu zen batalla gau esplikatzten dute San Mat.[ek] eta San Zip.[ek]. Bata-llaturik [Kristo]ren Maj. Jordaneko ugaldeko uretan zituelaikan ya ogeita amar urte. Espiritu Santi Jaunaren instintos juan ze desiortora. Zergatik nai tuenak logratu triunfoak irur etsaietatik nola baitirade mundua, demoni[o]a eta aragia, estu kausituko leku apropositoagorik, eta Maestro dibinoak ematen digu exenplotzat bere retirada au. Au baita, hala ere, erakustea [...] justoeneri [ere], zergatik [...] badauzkite [ere] konzienziak garbiturik, beti ofrezituko zaikote peleatzea tentaziotan eta zenbatenas dauden prebeniturik [kris]ti[oa]k eginen dituste tiroak seguridade geiagokoareki logratzeko triunfoak.

Baña, o Jaun Soberanoa, zuk [...] [abisoak] ematen badizkiguzu [ere], prebenitzen badizkiguzu arma poderosoak, non daude gure balentiak, no ditu triunfoak biktorietan Demoni[o]en kontra logratu ditugunak zure erakuste amoroso ortas, ontan paratzen dirade justoena ezpadago libre demonioaren tentaziotatik, zer eginen du bekatariak? Baña nago ni ezi onek gutiago kaso egiten duela, zergatik dauka arima ilik eta akonsolatzen dela arla bizitzeas bata badatela.

## **HIRU HAUREN KANTIKA** **Garesko euskaraz**

1. Jaunan obra guziak, benerika [zoz] Jauna, gauza guzien gañetik gora [zoz] beti.
2. Jaunan aingeruak,
3. Zeruak,
4. Zeruen gañean dauzten ur guziak,
5. Jaunan birtude guziak,
6. Iguzkia t'ilargia,
7. Zeruko izarrak,
8. Auri t'intza guziak,
9. Jainkoan espiritu guziak,
10. Sua ta beroa,
11. Otza ta beroa,
12. Intzak eta [izotzak],
13. Izozea t'otza,
14. Izotza t'elurrak,
15. Gauak eta egunak,
16. Argia t'iluna,
17. Relanparoak eta lañuak,
18. Benerika bezoz lurrak Jauna[]: gauza guzien gañetik gora bezoz beti.
19. Oianak eta aldapak,
20. Lurrean jaiotzen diren gauza guziak,
21. Iturriak,
22. Itxasoak eta ugaldeak,
23. Lumerak eta uretan mogitzen diren gauza guziak,
24. Zeruko [txori] guziak,
25. Arimale guziak eta [abreak],
26. Gizonen semeak,
27. Israelek benerika bezoz Jauna, gauza guzien gañetik gora bezoz beti.
28. Jaunan apezak.
29. Jaunan zerbitzukoak,
30. Espirituak eta justoen animak,
31. Sanduak eta umilak biotzes,
32. Ananias, Azarias, Misaelek.

## **Bigarren zatia**

## MARTIN ETA BASAJAUNAK

Basajaunak nolakoak ziren nornahiek daki: gizon itxura zute, baña gizonak baño handiagoak zire. Batzuek erraten dutenes, gorputza billos estalirik zute, eta dakiten guziek diote laizki indartsuak zirela.

Oihan barren-barrenean bizi ziren, eta bizimodua lurra landus egiten zute bates ere. Langintza hortan anis zekite. Inguruko herrietako jendeak baño anis ere gehiago zekite.

Aspalditik erraten denes, basajaunak ez zire oso urruti bizi eta, beti bejala, inguruetako lurrak lantzen zituzte eta, bertze gauza aniseki batio, gari ugari biltzen zute.

Gizakiek garia ezagutzen zute, baña ez zaukitez ez eraikitze eta ez ogiaren egiteko, eta basajaunengandik eskuratzeko ahalegin handiak egiten bazituzten ere, basajaunek ez ziote gizakieri ioiz ematen.

Behin, bertze anisetan bejala, herriko gizonak basajauneri garia nola kendu eztabaidatzen ari zire eta, harlako batean, herriko gizon bat txujen mintzatu zekiote bertzeeri:

—Nik badakit nola eskuratu garia basajaun horiengandik. Mendira igan eta oiha-nera joanen naiz, haieki hitz egiteko. Ikusiko duze nola nik ekarriko duten hainbertze nahi dugun garia.

Han zegoen batek, xakin-nahis beterik, galdegin zio:

—Zu, Martin... Nola ekarriko diguzu gari hori? Erran nola erdetsiko duzun.

Baña Martinek, ez zue deus erran nahi, zerengatik ixilean gorde nahi baizitue bere asmoak. Horrengatik, herriko plazan elkaturik zeuden gizonen ez zituzte hain-tzat hartu Martinen hitzak.

Ordu arteo zenbait aldiz ahalegindu zire garia erdesten, baña beti alperrik izan ze. Horrengatik erabaki zute Martin mendira joatera uztea, basajauneki mintzatzera.

Herriko gizonen baieskoa hartu, eta bere etxera joan ze. Han bota handi batzuk jantzi zitue, baña, hain handiak zirenes geros, Martin ezin ze ongi ibilli.

Etxetik atratzean halako oñetako handieki ikusi zutenean, irris erran ziote:

—Nora zoaiatz, Martin, bota handi hoieki ia ibilli ezinik?

Eta Martinek, haien irrien ardurarik bage, serio errespondatu ziote:

—Oihanera noaia, basajuneki hitz egitera.

Harlaxe bada, mendian goiti joan ze behar zuen lekura heldu arteo, eta han basajaun talde bat ikusi zue, guzis lanpeturik garia biltzen, eta mulso handitan jartzen.

—Zer nahi duzu honaraño iganik? —galdegin zio basajaun batek, aurpegi ilunareki.

—Gari-biltzen lan handia duze, baña minutu batzuk galtzea axola ez bazaize, apustu bat egin nahi nuke zeki —errespondatu zio Martinek—. Ea nork egiten duen

saltorik handiena gari-mulso zabal horren gañetik, eta, horla, bide bates atsedentxiki bat hartuko duze lanean.

Irriari eutsi ezinik, basajaunak algara handi bat egin zue eta, goitik behera begiratzeas batio, erran zio:

—Baña zu, gizon txiki hori, nola ausartzen zare gureki, hain indartsuak eta handiak garen basajaunoki apustu egiten?

—Zek ni baño handiagoak zaratela argi ikusten da, eta badaike nik baño salto hobeak egitea, baña halarik ere ni saltoka norbait naiz gizonen ermean, eta kontent naurtuko nuke nere trebetasuna zenareki —errespondatu zio Martinek.

Basajaunak, irri txiki gaisto bateki, lagun batzuk deitu zitue eta, guziak elkaturik, gari-mulso handi baten aurrera etorri eta harren gañetik saltoka hasi zire.

Gari-mulso guziak saltatu zituzte erraztasun handis, eta Martinen txanda heldu zenean, basajaunak erran zio:

—Heldu da zure txanda. Ikus zagun zer egiten duzun. Guk guziok argi eta garbi saltatu dugu.

Martin azkarrak bazekie basajaunak bera baño saltozale hobeak zirela. Hura egiteko arrazioa garia erdestea baño ez ze. Bazekie gari-mulso haien gañetik pasatzea ezineskoa zela, eta nahitaez erdian eroriko zela, eta horla gari anis sartuko zekiola bota handietan. Izan ere, asmo horreki jantzi zitue bota haiek.

Deus erran bage, eta itxura hobe emateko, abiada hartu zue, baña, halarik ere, gari-mulso gañera erori ze eta botak, pensatu zuen bejala, gari eta burukas bete zitue gañeraño.

Basajaunek Martin gari ermean eroririk ikustean, irri-algara handi bat egines erran ziote:

—Eta zu zinda gureki lehiatu nahi zuena? Ha, ha, ha! Ikusten duzunes, gutariko nornahiek zuk baño hobeki egiten du. Hortas, zure apustua galdu duzu.

Martinek, garia erdetsi baizue barrenean pozes beterik bazen ere, aurpegia ilun jarriarik, erran zio:

—Harla da, galdu dut. Nik baño anises hobeki egin duze zek.

Hura erran eta mendi-maldan behera joan ze. Hastean polliki-polliki, baña basajaunengandik urruti zegoenean, gari beterikako bota handiek uzten zioten bejain fite joan ze. Lasterka zihoaie artean bere buruari erraten zio: «Bai ongi atra dela nere jokoa. Nik uste baño anises errazagoa izan da».

Halako pensamentutan zihoaie bidean. Ioiz ez zue pensatuko basajaunak hain erraz engainatuko zituenik.

Baña Martin makur zego. Orañik bukatu bage zeude basajaunekiko harremanak. Harlaxe, bat-batean Martineki lehenik hitz egin zuen basajauna konturatu ze harren jokoas: gari-mulso gañera erori eta handik atratzean ez zitue botak hustu!

Basajauna hartas guzias konturatu zenean, eta gizon batek hain erraz engainatu zituela ikusi zuenean, fite eta bizi bere lagunak deitu zitue, eta Martinek garia ebas-teko eginikako azpijokoa argitu ziote guzieren. Zer agitu zen entzun ondoan, laizki hasarre eta lasterka, harren bila atra zire.

Martin, basajaunen bizilekutik urruti zegoelarik, polikiago ibiltzen hasi ze, oso nekagarria baize gari beterikako bota haieki lasterka ibiltzea.

Baña... zer ze hura? Bat-batean urrutitik zetorren arroitua bat entzun zue. Burua jiratu eta, oso urruti, basajaun batzuk beregana lasterka ikusi zitue. Orduan Martinek ahaleginak egin zitue, momentu hartan zihoiaren euntzetik lehenbañolehen atra eta aurreko zugaztira sartzeko.

Basajaunak, beren zango luzeeki, Martin baño fiteago zebiltza, eta gero eta hur-bilago zeude harrengandik, eta gero eta hobeki entzuten zitue haien zaragata eta oihiak!

Basajaunak konturatu zire Martin aurreko oihera heldus geros, ezin izanen zutela harrapatu. Horrengatik bertze guzien aurrean zihoiarenak bere ganibeta hartu zue eta indar handis bota zio Martini lepora. Baña huts egin zue, eta Martin oihera heldu ze.

Lehenbisiko zugaitz erlean gorde zenean, salbu ikusi zue bere burua, eta lasai hats hartu zue. Baña gero berris ere lasterka segitu zue, basajaunen beldur baize.

Herrira heldu zelarik guzies nekaturik, hats hartu ezinik, izerdis beterik zego. Harren lagunek inguratu zute, basajauneki izanikako harremanen berri xakin nahirik. Baña Martinek, kasurik egin bage, orai lasai eta patxada handis, aurrera segitu zue, herriko plazara heldu arteo.

Laster bete ze plaza herriko jendes. Martinek guzieren kontatu ziote egin zuena: apustua, nola iges egin zuen, etabar.

Guzia bukatu zuenean, zeramatzan bota handiak kendu zitue, irauli, eta gariburuka anis erori ze lurrera. Jendeak, orduan, alai eta kontent, oihiak eta irri-argara handiak egin zitue.

Lehenbisiko poza pasatu ondoan, eta Martinek eginikakoa ospatzeko, xai handiak egitea pensatu zute, eta xaien buru Martin izendatu zute, harri esker eraikiko baizute garia hurrengo urrian.

Eta harlaxe erdetsi zituzte gizakiek lehenbisiko gari aleak, Martini esker. Gero, alde guzietako herritarrek hasi zire beren soroetan eraikitzen eta buruka ederrak biltzen.

*Egokitzaila eta prestatzaila: Aitor Arana*

## ONA ETA PIZTIA

Errege batek hirur alaba izateas gañera, oso gogoko zue ferias feria ibiltzea, xairik xai. Alaberi beti ekartzen zizkiote erregaloak, baño anis aldis atzentzen zekio bere alaba txikianari eta guzies eder eta atseginari erregaloea ekartzea.

Egun batean alaba gazteenari galdegin zio zer erregalo nahi zuen.

—Ekar zadazu lore bat, mertxedes.

Erregea joan ze eta egias saiatu ze bere alaba nagusiendako erosketak egiten. Lehenarendako kapela, gerrikoa, urresko haridun babutxak, gozokiren batzuk eta uringarriak. Bertzearendako, oihalak, besana, lehenarendako erosirikako uringarri bera eta orduak argi bizis zituen erlojua.

Gaztelura itzultzean, lores ongi jantzirikako lorategia ikusi zue.

—Ene alabarendako lore bat ekartzea atzendu zaida. Hemen dozket. Mulso on bat hartuko dut.

Zalditik jaitxi eta loreak biltzen hasi ze. Laster entzun zue ahots sendo bat:

—Nork eman dizu baimena lore hoiek hartzeko?

—Iork ez —errespondatu zue erregeak.

Irri burlatia entzun ze.

—Badakit hirur alaba dozkezula. Urtea bukatu baño lehen ez badirazu bat ematen, zauden lekuan zaudela, su hartuko duze zuk eta zure erreñuak.

Erregea urduri sartu ze itxean. Erregaloak banatu zitue, gazteenarendako mulsoa ere atzendu bage. Ondoan triste xarri ze. Alabarik zaharrenak erran zio:

—Nork xartzen zaitu horren triste?

—Ene alabaren batek joan nahi ez barinbadu zenbait lore dauden baratzera, ni eta nere erreñua suak erreko gaitu urtea bukatu baño lehen.

Alaba zaharrenak erran zue:

—Erre zaizkitela nahi baduzu, baño ni ez noaia baratze hortara, zaude ziur. Konpon zeit ene bi ahizpeki.

Bigarren alabak honla segitu zue:

—Konpon zazkizu zaure arazoak nahi duzun bejala, baño ni ez noaia.

Erregearen tristura handitus zihoiare. Alaba gazteak azkenean erran zio:

—Oso arduraturik zaudela iduritzen zaida. Norbaitek iraindu zaitu?

—Zure lore mulsoa bildu dutenean, ahots sendo bat entzun dut kontatu dizetana eni erraten.

—Ene aita —erran zue gazteenak—, atzen zazu kezka hori. Naurau joanen naiz.

Nesakoa karroza batera igan ze, eta berehala abiatu zire zaldiak. Eredu batera allagatzean, nesakoak gaztelu eder bat ikusi zue. Han sartu zelarik, modu aniseko musika arraroak eta kanta alaiak entzun zitue. Baña ez zue ior ikusi. Berarendako egin iduri zuen goatze handi batean lo egin zue eta, biharamun goizean, bere ondoan zeuka katillukada bete txokolate bero. Gero bazkaria arkitu zue, eta geroago afaria, baña ior ikusi bage.

Egun anises luzatu ze egoera hura. Azkenean, goiz batean, ahots bat entzun zue:

—Hertxi begiak; zure belaun gañean atsedean pixka bat hartu nahi dut.

—Bai —erran zue nesakoak—, ez naiz deusen beldur.

Suge handi bat agirtu ze. Nahi bage, nesakoa pixka bat beldurtu ze. Geroxeago, sugea handik joan ze.

Horla gauzatu ze nesakoaren bizitza. Zoriontsu bizi ze eta ez zekio deus falta.

Egun batean, berris ere, ahots bera entzun zue:

—Ez duzu zure gureasoen etxera itzuli nahi?

—Zoriontsua naiz hemen eta ez du itzultzeko tirria apurrik ere.

—Horla nahi baduzu, joan zaizke hirur egunes. Eratzun hau ematen dizut: kolores aldatzen badu, eri nagola erran nahi du; odol kolorea hartzen badu, peril handian nagola.

Nesako gaztea aitaren etxera itzuli ze. Aita biziki kontent xarri ze alaba ikustean. Bi ahizpek galdegin ziote:

—Zoriontsu iduri duzu. Lehen baño politagoa zaude. Noreki bizi zare?

—Suge bateki.

Ez ziote siñestatu nahi izan. Hirur egunak fite joan zire. Nesako gazteak eratzunari begiratzean, aldatua ikusi zue. Igurtzi eta odol kolorea zeuka. Lasterka itzuli ze gaztelura. Guzia ze ixiltasuna. Ez zego iolako musikarik. Sugeari deitu zio eta ez zue iondik aurkitu.

Lorategira atra ze eta lur-pusketa irauli berria eta izoztua ikusi zue. Su handia egin zue inguruan eta orduan sugea agirtu ze.

—Zuk atzendu ninduzu —erran zue arimaleak—. Su hori itxigi ez bazenu, hila niza.

—Egia da —errespondatu zio nesakoak—. Atzendu zintuda, baña eratzunak gogorarazi dira.

Berris entzun ze musika eta, harreki bat, gazteluan xai giroa izan ze. Sugea gau batean nesako gaztearengana hurbildu eta galdegin zio:

—Ezkundu nahi duzu eneki?

Nesakoak ez zue errespondatu. Ondoko egunetan, sugeak galdera bera egin zio hirur aldiz. Gazteak ez zue beñere errespondatu, baña baziakie azkenean baietz erranen ziola.

Aitaren etxera itzuli ze ezkontzaren prestatzera. Sugeari ezkontzea erabaki zuela erra ziote guzietan. Erregeak baimena eman zio, nahiz kontra egon. Bi ahizpak harriturik gailtu zire.

Gero, sugeak nesakoari galdegin zio:

—Zer duzu nahiago, suge izan nadila etxetik elizara bidean, edo hobeki elizatik etxera?

—Nahiago dut zu suge izatea etxetik elizara.

Harla, karroza handi bat etorri ze eta sugea harara igan ze.

—Hertxi ongi leihatilak, iork ni ez ikusteko.

—Baina heltzean karrozatik jaitxi behar izanen dugu, ezta?

—Horrek ez du garrantzirik.

Erregea ze karrozako atea iriki behar zuena. Oihu egin zue sugearen aurrean zegola pensaturik, baña nolako harridura gazte eder bat ikustean!

Xai handia egin ze erregearen jauregian. Gero ezkonberriak erran zio bere emazteari:

—Goazen gaure etxera. Garrantzi handiko kontu bat dut. Gero ikusiko dugu elkar.

Etxera itzuli zirelarik, mutil gazteak zare handi bat eman zio bere emazteari, eta zarean suge-azala.

—Su handia eginen duzu. Gauerdiko lehen ezkil-hotsak jotzean, egotzi sutara suge-azala. Guzis erre behar da eta hautsak leihotik egotzi, hamabigarren ezkil-hotsak jo baño lehen. Horla ez egines geros, galdua naiz betiko.

—Saiatuko naiz.

Gauerdia baño lehen, nesakoak su handia itxigi zue. Gauerdian azala sutara egotzi zue eta guzis erretzeas arduratu ze. Hautsak bildu eta leihotik egotzi zitue hamabigarren ezquila jotzen ari zelarik.

Ahots lotsagarria entzun ze:

—Madarikatzen zaituztet, madarika...

Ahotsa biziki fite joan ze indarbagnetus. Orduan senarra etxean sartu ze. Biziki kontent zego.

—Sorgindurik egon aiz hogeita bat urtes —xakinarazi zio nesakoari—. Orai ez dut zertas beldurturik. Bizitza xai giroan emanen dugu. Lehenik, zure aitaren etxera itzuliko gare.

Eta horlaxe egin zute.

*Egokitzaileak:*

*Alfredo Dufur, Txetxu Ezkurra, Ander Irisarri*

*Prestatzailea:*

*Aitor Arana*

## **NOLA KATTALINEK DIABRUARI ZIRIA SARTU ZION**

Manex Atarratzeko gizon gaixoak ez ziakie zenbat seme-alaba zituen. Kattalin, harren emaztea, argal eta ahul zego. Manexek gau eta egun lan egin behar zue eta, halarik ere, harren haurrak ioiz ere ez zire behar bejala janzen, eta gose zire. Egoera hartatik atratzeko moduak pensatzen aritzen ze etenbage Manex gaixoa.

Egun batean, onbor baten gañean xarririk zegola, burura etorri zekio bere gazte denboran maiz aipatzen zirela Orhi gañean elkartzen ziren iratxoak eta sorginak. «Harara joan nahi nuke estualdi hontatik atra nazaten», erran zio bere buruari. Horla, berak bertze atrabiderik ez zuela pensatzen zue. Goiz batean, zeukan onena jantzirik atra ze itxetik.

—Nora zoiaz? —galdegin zio Kattalinek.

—Bisita bat egin nahi diotet mugako lehengusueri —errespondatu zue, gezurretan—. Ez dakit noiz itzuliko naizen.

Baso handi baterata abiatu ze, iratxoak eta sorginak elkartzen ziren lekura. Han lasai xarri ze, etxedeten. Artean ez zen gauerdia...

Gauerdia heldu zelarik, zurrumurru bat sortu ze alde guzietan eta Manexek, begi hertxi-iriki batean, ilargiaren argitan, atso maki bat ikusi zue erratz gañean zaldiska, eta harren ondoren iratxo eta sorgin mulso handia. Euntze batean batzarre egin zute, harri baten inguruan. Bakotxak, bere txanda heltzean, harriaren gañera igan eta handik ematen zue astean zehar eginikakoaren berri. Anis ongi zihoaie guzia, adar artetik begira zegon Manex gaixoarendako. Ioiz ez zue entzun hainbertze gertaera berezi batera. Bat-batean, partaide guziek elkarri eskua eman zioze eta ondoan xarri zire. Atso makiak, sorginen erregia baitze, harri gañera igan, eta kanta zozo bat kantatu zue ahots itxusis. Kantatus goar bat egin zioze erregiak sorgineri eta iratxoeri: hurrengo larunbatean ere han elkartu behar zute.

Sorgin makiak harri gañean xarririk segitzen zuenes geros, Manex hurbildu zekio:

—Ni gaixo hutsa naiz. Haur anis dozket eta emaztea eri...

—Saiatuko naiz lagun egiten —erran zio sorginak—, baña baldintza bateki. Begira zaku txiki hau. Urres beterik dago. Urre horrek kopuru berean segituko du nahiz eta hortik atras joan. Horreki abratsa izanen zare betiko. Zure emaztea ere senda nezake. Laster, zure etxerako bidean, lezezulo baten aitzinetik pasatuko zare. Hots arraroak entzunen tuzu. Ez izan beldurrik. Hurbil zeit harara eta bil zazu sarreran hazten den belarra. Belar horri egunean hirur aldiz irakin eraginen diozu. Zure emazteak belar egosiaren ur hori edaten barinbadu, laster sendatuko da.

Manexek ioiz ez zue halako hitzik entzun.

—Nor zare zu? Tratua noreki egiten duten xakin nahi nuke.

—Belzebu naiz ni. Sorgin eta iratxoen errege-erregien fedean, infernuko zazpi diabru handienetariko bat.

—Eta zer egin behar dut zakuto horren xabe izateko?

—Hoge urterako utziko dizut, zure abastasunes balia zaitzen. Eguna heltzean enea izanen zaitut. Infernura etorriko zare eneki. Han ez dugu hain gaizki ere pasatzen.

Manexen aukera eginik zego: bere haurrak ez zitue gehiago ikusi nahi goses, eta emaztea eri. Eskua luzatu zue zakua hartzeko. Sorginak eman zio eta, berehala aker bihurturik, laurankan joan ze Orhi mendian goiti, gailurrerata.

Diabruak aldes aurretik errana guziz bete ze: Kattalin sendatu ze eta haurrak sendo eta alai hazi zire, eta hoge urte haiek eroso joan zire.

Manex diabruarekin eginikako itunas oraitu ze eta gutziatsu eta kezkatu xarri ze. Kattalin, naski, goartu ze, eta halako tristuraren arrazioa xakin nahi izan zue. Manexek ezin izan zue gehiago ortzi itotzen zuen bere sekretua.

—Badu hoge urte erran nizula lehengusu abrats baten itxean izan nizala eta harrek eman zizkiralara urres beterikako zakutoa eta sendabelarrak. Gezurra erran nizu. Diabruak eman zizkira horiek guziak. Harreki itun bat egin nue, eta etorri zaida harren eskuetara joateko eguna. Horrengatik nago triste.

—Ene! —oihu egin zue Kattalinek—, horla da, orduan. Ez izan beldurrik, Manex, asmatuko dut diabruari ziria sartzeko modua.

Egun batean, itunean erranikako orduan, Belzebu Manexi etorri zekio.

—Zure bila etorri naiz.

Baña Kattalin han zego eta honla hitz egin zue:

—Manex etxe hontako nagusia da —erran zio ozen diabruari—. Eta ni etxe-koandrea. Ene baimenik bage zureki eginikako akordioak ez du baliorik, gizon hau eneki konprometiturik baitago eta ni berareki.

—Nork sendatu zaitu zu? —galdegin zio diabruak—. Eta abastasunean bizitzea ekarri dizun urre hori nork eman dizu? Zure senarra bejalaxe aprobetxatu duzu guzia, eta ez duzu zer erranik.

—Egia da —errespondatu zue Kattalinek—; ezin dut eragotzi zuk Manex eramatea. Baña hori joan aurretik bideskoa da etxeko lana eginik egotea. Has gaitzen lanean. Eta zuk, etxedeten zauden artean, nahi duzu zuri ere lanen bat ematea?

—Zerengatik ez? —erran zue diabruak txantxetan.

—Hona hemen bi ahari-larru. Bata zuria da eta bertzea beltza. Zoaiaz ugaldere eta garbi zazkizu biak zuri egon artio.

Diabrua ugaldere joan ze, lana laster bukatuko zuela pensaturik. Garbitzen hasi eta, txautus-txautus, larru zuria gero eta zuriago xartzen ze eta beltza, aldis, gero eta beltzago. Berris indartsu ekin zio lanari, besoari sendo eragines. Baña ez zue emaitzik allegatzen.

Guzis hasarre, itxera itzuli ze eta Kattalinen oñetara egotzi zitue bi larruak.

—Gorde zazkizu zaure ahari-larruak eta zaure senarra. Garbiketa lanetan denbora anis galdu dut. Bertze batzuk eraman behar tut infernura. Zer axola zaida hori?!

Egun hartatik aurrera, ez Manexek ez Kattalinek ez zute gehiago diabruas entzun.

*Egokitzaiak:*

*Aritz Azkona, Koldo Colomo, Iñaki Chourraut Agirre,  
Jon Erixe, Mikel Goñi Beriain, Xabier Sola Esnal*

*Prestatzailea:*

*Aitor Arana*